

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GRADU AMAIERAKO LANA

EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA

ABERASTASUNA ETA FORTUNA HANDIEN GAINEKO ZERGA

Ainara Salegi Barruetabeña

Tutorea:
Igor Álvarez Etxeberria

AURKIBIDEA

SARRERA.....	5
LANAREN MOTIBAZIOA.....	5
PLANTEAMENDUA ETA HELBURUAK.....	5
METODOLOGIA.....	6
GAIARI SARRERA.....	7
1. BILAKAERA HISTORIKOA	9
2. XEDAPEN OROKORRAK.....	17
2.1. IZAERA ETA XEDEA	17
2.2. APLIKAZIO EREMUA	18
2.3. NAZIOARTEKO ITUNAK ETA HITZARMENAK	19
3. ZERGA GAIA ETA ZERGADUNAK.....	19
3.1. ZERGADUNAK.....	19
3.2. ONDARE ELEMENTUEN ESLEIPENA.....	20
3.4. ZERGAREN SORTZAPENA	21
4. SALBUETSITAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEAK.....	21
5. OINARRI ZERGAGARRIA	23
5.1. ONDASUN HIGIEZINAK	24
5.1.1. ONDASUN HIGIEZIN HIRITAR EDO LANDATARRAK.....	24
5.1.1.1.ADIBIDE PRAKTIKOA.....	28
5.1.1.2.ONDORIOAK.....	32
5.1.2. ERAIKITZEN ARI DIREN ONDASUN HIGIEZINAK	34
5.1.3. JABETZA ANITZEKO KONTRATUEN EDO ANTZEKOEN INDARREZ ESKURATUTAKO ONDASUN HIGIEZINEN GAINeko ESKUBIDEAK.....	35
5.2. AKTIBO FINANTZARIOEN BALORAZIOA	35
5.3. GAINONTZEKO ELEMENTUEN BALORAZIOA	37
6. OINARRI LIKIDAGARRIA.....	38
6.1. MINIMO SALBUETSIA	38
7. KUOTA OSOA	40

7.1.	LURRALDE HISTORIKOETAKO OGASUNETAKO TARIFAK	40
7.2.	TARIFEN ARTEKO ALDERAKETA.....	43
8.	KUOTA LIKIDOA	45
8.1.	ATZERIAN ORDAINDUTAKO ZERGEN KENKARIAK	45
8.2.	HOBARIA JARDUERA EKONOMIKOEI ELEMENTUAK ATXIKITZEAGATIK ETA ENTITATE JAKIN BATZUETAN AKZIOAK ETA PARTAIDETZAK EDUKITZEAGATIK.....	45
8.2.1.	JARDUERA EKONOMIKOEI ELEMENTUAK ATXIKITZEAGATIKO HOBARIA.....	47
8.2.2.	ENTITATE JAKIN BATZUETAN AKZIOAK ETA PARTAIDETZAK EDUKITZEGATIK HOBARIA	48
8.2.3.	ADIBIDE TEORIKOA.....	52
8.2.4.	ADIBIDE PRAKTIKOAK: HOBARIA EDO SALBUETSIA?.....	56
8.2.5.	ONDORIOAK: AURKA JARRITAKO BI POSTURA.....	66
9.	KUOTA OSOAREN MUGA	69
9.1.	AZALPENA ETA BILAKAERA HISTORIKOA	69
9.2.	KUOTA OSOAREN MUGAREN APLIKAZIOA	74
9.3.	ADIBIDE PRAKTIKOAK.....	75
9.4.	ONDORIOAK: KUOTA OSOAREN MUGA EZTABAIDA GAI	82
10.	ZERGA BILKETAREN INGURUKO ZENBAIT DATU	84
11.	ONDORIOAK	85
	BIBLIOGRAFIA	89

TAULA ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Taula 1: Autolikidatzeko betebeharra. Iturria: Lantze propioa	20
Taula 2: Ohiko etxebizitzagatiko salbuespena. Iturria: Lantze propioa.....	21
Taula 3: Ondasun higiezinaren balorazio irizpideak. Iturria: Lantze propioa	27
Taula 4: Adibide praktikoko ondasun higiezinaren balorazioa. Iturria: Elaborazio propioa	28
Taula 5: Adibide praktikoa: Gipuzkoa (2014 AFHZ) higiezinaren balorazioa. Iturria: Elaborazio propioa	29
Taula 6: Adibide praktikoa: Gipuzkoa (2015 AFHZ) higiezinaren balorazioa. Iturria: Lantze propioa	29
Taula 7: Adibide praktikoa: Bizkaia higiezinaren balorazioa. Iturria: Lantze propioa	30
Taula 8: Adibide praktikoa: Araba higiezinaren balorazioa. Iturria: Lantze propioa	31
Taula 9: Adibide praktikoa: Nafarroa higiezinaren balorazioa. Iturria: Lantze propioa	31
Taula 10: Adibide praktikoa: Oinarri zergagarriaren zenbatekoa higiezinaren kontzeptuan lurralde historiko bakoitzean. Iturria: Lantze propioa.....	32
Taula 11: Salbuetsitako minimoen zenbatekoa araudika. Iturria: Lantze propioa	40
Tabla 12: Gipuzkoan 2014ko abenduaren 31n indarrean zegoen AFHZren tarifa. Iturria: "10/2012 Foru Araua, abenduaren 18koa, Aberastasuna eta Fortuna Handien gaineko Zerga"-18.orrria.	40
Taula 13: Gipuzkoan 2015eko abenduaren 31n indarrean zegoen AFHZren tarifa. Iturria: "6/2015 Foru Araua, abenduaren 23koa, Aberastasuna eta Fortuna Handien gaineko Zerga moldatzen duena"-7.orrria.....	41
Taula 14: Bizkaiko ondarearen gaineko zergaren tarifa. Iturria: "2/2013 Foru Araua, otsailaren 27koa, Ondarearen gaineko Zergari buruzkoa"-14.orrria.	41
Taula 15: Arabako ondarearen gaineko zergaren tarifa. Iturria: "9/2013 Foru Araua, martxoaren 11koa, Ondarearen gaineko Zerga"-14.orrria.	42

Taula 16: Nafarroakoa ondarearen gaineko zerga tarifa. Iturria: "12/1992 Foru Legea, azaroaren 19koa, Ondarearen gaineko Zerga"-12.orria.	42
Grafikoa 1: Aztertutako Lurralde Historikoetako tarifen alderaketa grafikoa. Iturria: Lantze propioa.....	42
Taula 17: Adibide praktikoa: ARGI, E.M.S. ren egoera balantzea. Lantze propioa (asmaturiko balantzea)	56
Tabla 18: Kasu praktikoa 1: ARGI E.M.S.ren enpresa edo jarduera ekonomikoei atxikitako ondasun eta eskubideen balorazioa. Iturria: Lantze propioa.	60
Taula 19: Kasu praktikoa 2: ARGI E.M.S.ren enpresa edo jarduera ekonomikoei atxikitako ondasun eta eskubideen balorazioa. Iturria: Lantze propioa	62
Taula 20: Kasu praktikoa 2: ARGI E.M.S.ren zerga likidazioa. Iturria: Lantze propioa	63
Taula 21: Kasu praktikoa 3: ILUN, E.M.S. ren egoera balantzea. Lantze propioa (asmaturiko balantzea).....	64
Taula 22: Kasu praktikoa 1: Kuotaren zenbatekoa lurralde historiko bakoitzeko. Iturria: Lantze propioa	75
Taula 23: Kasu praktikoa 2: Kuotaren zenbatekoa lurralde historiko bakoitzeko. Iturria: Lantze propioa	77
Taula 24: Kasu praktikoa 3: Kuotaren zenbatekoa lurralde historiko bakoitzeko. Iturria: Lantze propioa	79
Taula 25: Kasu praktikoa 4: Kuotaren zenbatekoa lurralde historiko bakoitzeko. Iturria: Lantze propioa	80

SARRERA

LANAREN MOTIBAZIOA

Gai hau aukeratu dut interes pertsonala medio azken urteotan zerga hau eztabaidagai izan delako eta bere aplikazio unetik, baita lehenago ere, kritika batik bat politikoen diana izan delako.

Oinarri politikoa duten kritika horien atzean benetako argudiorik ezkututzen zen aztertze eta argudiatze horren aurrean nire iritzia garatzeko, zergaren gaineko azterketa zehatz eta zorrotza egiten saiatu naiz.

Oraintsu esan bezala, hasiera batean gaia planteatu eta proposatzeko kausa pertsonala izan bazen ere, gaia jorratu dudan heinean zergak honek duen oinarri ekonomiko zein politikoen garrantziaz ohartu naiz. Lana amaitu ostean, zentzu zabalean ulertzen nuen zerga, hein batean, askoz ere sakonago ulertzen dudala baieztatu dezaket eta beraz lanaren amaieran eman ditudan ondorioek ikuspegi kritikoagoa dutela esan dezaket.

PLANTEAMENDUA ETA HELBURUAK

Lan hau Aberastasuna eta Fortuna Handien gaineko Zergaren abenduaren 18ko 10/2012 Foru Arauan (*Gipuzkoako Foru Aldundia, 2012*) oinarritzen da. Zergaren izatea ulertzeko bilakaera historikoa aztertuko da, egun honen mantentzearen eta ezabatzearen aldeko zein aurkako jarrerak lagunduz. Azterketa sakontzeko zergaren izatea, funtzionamendua eta aplikazioa zehaztuko dira, bai teorikoki baita ariketa praktikoen bitartez ere, azterketari ikuspegi dinamikoago bat emateko asmoz.

Landutako puntu bakoitzean gaiarekiko ezjakina den edonork ulertu ahal izateko azalpen teorikoak eman ditut, ahalik eta modurik argienean, baina era berean beharrezkoak diren zehaztapen guztiak barneratuz. Atal bakoitza

amaitzeko adibide praktiko bakunak planteatu ditut, gai teorikoa praktikan jarri eta ondorioak ateratzeko.

Zerga honen inguruko azterketa isolatu bat ez egiteko asmoarekin, gainontzeko lurralde historikoetako araudiekin alderaketak egin dira. Zehazki bost izan dira landu diren araudiak; Gipuzkoan 2014 eta 2015eko ekitaldietan indarrean zirenak, Bizkaia, Araba eta Nafarroakoa. Alderaketa hauek teorikoki egiteaz gain praktikoki ere aurrera eraman dira, beraien arteko diferentziak eta bat ez etortzeak argiago azaltzeko helburuarekin.

Lanaren helburua araudi baten edo bestearen aldeko defentsa egitea ez den arren, lanean zehar hainbat izan dira nire iritzia edo postura adierazi ditudan puntuak. Araudi ezberdinen aplikazioak nahastuz eta aurka jarriz irakurlean jarrera kritikoa piztu nahi izan dut, nire iritzia eman arren datuen bidez berea sortu eta garatu dezan.

Amaieran jorratutako gaiaren ondorio orokor batzuk plasmatu ditut, aurretiaz puntu bakoitzetik ateratako ondorio zehatzen laburpen bat eginez.

METODOLOGIA

Arestian esan bezala lan hau Aberastasuna eta Fortuna Handien gaineko Zergaren abenduaren 18ko 10/2012 Foru Arauan (*Gipuzkoako Foru Aldundia, 2012*) zentratzen da.

Lanean zerga honen inguruko ikerketa bibliografikoa egin da eta horretarako bigarren mailako datuetara jo da, hau da, jadanik landuak izan diren datu eta informazio iturrietara. Lanketarako iturri nagusienak lurralde historiko bakoitzeko Foru Arauak izan diren arren, testuak, dokumentuak, artikuluak eta gaiaren inguruan egindako azterketak ere informazio iturri garrantzitsuak izan dira.

Behin aipatutako iturri guztietatik informazioa lortu ondoren ahalik eta modu argienean ordenatu eta lanaren testuinguru teorikoa garatu dut, beti ere,

Foru Arauan egitura ahal den neurrian jarraituz, estruktura komun bat lortzeko asmoz.

Jarraian marko praktikoa bat sortu dut, bai puntu bakoitzean baita orokorrean ere aztertutako Foru Arauak guztiak elkarrekin alderatuz.

Modu horretan ondorio zehatzetatik orokorretara zabaltzea lortu da, lanaren amaierako hausnarketa eta iritzi pertsonalera iritsi arte. Lanaren helburua azterketa tekniko bat egitea izan den arren, hau da, garapenaren oinarria zergaren ulermena eta aplikazioa izan den arren, araudien artean polemikoenak diren puntuetan ikuspegi subjektiboago bat ematen saiatu naiz, aipatuenak diren jarrerak azalduz eta neurea propioa emanaz.

GAIARI SARRERA

Aberastasuna eta Fortuna Handien gaineko Zergaren beharrak eta hau justu izatearen kontzeptuak eztabaida asko sortu du. Jakin badakigu aberastasunen jabetzak ahalmen ekonomikoa dakarrela bere titularrarentzat eta ondorioz badirudi gizarteak orokorrean justutzat hartzen duela horrexegatik zergapetze gehigarri bat jasatea. Hortik dator mota honetako zergen legitimotasuna nahiz eta ez izan hori zergaren aplikazioaren arrazoi bakarra.

Estatu mailan bezala gainontzeko autonomia erkidegoetan zerga hau arautzen duten hainbat araudi badiren arren, lan hau Gipuzkoako Aberastasuna eta Fortuna Handien gaineko Zergaren (AFHZ) abenduaren 18ko 10/2012 Foru Arauan (*Gipuzkoako Foru Aldundia, 2012*) oinarritzen da. Zerga honek badu aurrekaririk, hau da, ez da hutsetik sortua izan, baina onartua izan zen unetik hainbat izan dira jasotako kritikak, baita hauei erantzunez egindako defentsak ere.

Esan bezala asko idatzi da gaiari buruz, bai aldeko baita aurkako iritziak emanez ere, eta hori izan da gaia aukeratzeko arrazoi bat. Ezjakintasunez jarrera bat edo bestea hartzea justua ez denez, zergaren analisi sakon bat egin nahi izan dut ondoren iritzi propioa eman ahal izateko.

Lanaren garapenari sarrera gisa zergaren eboluzio historikoa landuko da, bere beharra, onartzea, aplikazioa, bilakaera, indargabetzea eta berrezartzea azalduz, azkenik aldeko zein aurkako kritiken zergatiak hobeto ulertu ahal izateko.

Jarraian zerga arautzen duen Foru Arauaren egitura jarraituz, puntuz puntu, aztertu beharreko alderdi guztiak sakondu dira. Behin alderdi teorikoa definitua egonik, argigarriak diren adibide praktikoak planteatu dira, teorian azpimarratu nahi izan diren berezitasunak argitaraziz.

Laburpen gisa, araudiaren ordena jarraituz, ohiko etxebizitzagatiko salbuespena izan da lehen puntua, bereziki sakondua izan den higiezinaren balorazioak jarraituz. Honen garrantzia kontuan izanda eta araudien arteko diferentziak nabarmenak direla kontuan izanik, erabiltzen diren irizpideak azalduko dira. Jarraian Ogasun bakoitzak onartzen duen gutxieneko zenbateko salbuetsiei erreferentzia egin zaie, gaian gehiegi sakondu gabe, diferentziak nabarmenak ere direlako. Tarifen kasuan zenbatekoak islatzeaz gain beraien arteko diferentziak azaldu dira, tipoek eta oinarri tarteen ezberdintasunek zer nolako garrantzia duten azpimarratuz. Jarraian jarduera ekonomikoei elementuak atxikitzeagatik eta entitate jakin batzuetan partaidetzak izateagatiko hobaria aztertuko da eta neurri hau edo beste lau araudiek ezarrita duten salbuetsita uztearen neurriaren arteko alderaketa egin da, bata edo beste aplikatzearen aldea esanguratsua izan ohi baita. Azkenik, kuota osoaren mugaren nondik norakoak azaldu dira, batez ere honen aplikazioaren edo ezaren arteko zalantzak mahairatuz. Geroago aipatuko dudan bezala, azken bi puntu hauek izan dira batik bat polemika gehien sortzen dutenak.

Era berean Foru Araua ez da modu aislatuan aztertua izango eta horretarako Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako gainontzeko Foru Arauekin eta Nafarroako Lege Foralarekin alderaketak egingo dira. Alderaketa horretan lanaren oinarri den Foru Arauarekin sortzen diren diferentzia nabarmenenak azpimarratuko dira eta horietan izango dira ondorioetan gehien errepikatuko diren alderdiak.

Ondorengoak dira araudien arteko alderaketan polemikoen izan diren puntuak eta era berean aldeko zein aurkako kritika gehien piztu dituztenak:

- Kuota osoaren mugaren ezabaketa
- Jarduera ekonomikoari elementuak atxikitzeagatik eta entitate jakin batzuetan partaidetzak izateagatik hobariaren ezarpena eta salbuetsita izatetik ez izatera igarotzea

Amaitzeko eta bukaera biribiltzeko lanean zehar puntu bakoitzean zehatzago aztertutako izan diren ondorioak laburtuko dira. Hauekin batera, idazleak, nik neuk, gaiari buruz dudak iritzia ematen saiatu naiz eta nahiz eta helburua ez izan araudi bat edo bestea goraiatzeko, hartutako erabaki batzuen aldeko zein kontrako kritikak egin ditut.

1. BILAKAERA HISTORIKOA

Ogasun Publikoaren teoriaren arabera jabetza da aberastasunaren erakusgarri garrantzitsua. Honek norbanakoen gaitasun ekonomikoa agertarazten du eta ondorioz Espainiako Konstituzioan jasotzen denari jarraiki, *“norbanako hauek bakoitzaren ahalmen ekonomikoaren arabera, herri-gastuaren euspenean lagunduko dute, berdintasun-eta gehikortasun-printzipioetan oinarrituriko zerga-egituraketa justu baten bitartez, eta horrek, inoiz ere, ez du konfiskatzeko aukerarik izango” (31.artikulua; Espainiar Konstituzioa 1978ko abenduaren 29an Estatuko Boletín Ofizialean 311.zenbakian argitaratua).*

Aberastasuna eta Fortuna Handien gaineko Zerga arautzen duen Foru Arauaren hitzaurrean azaltzen den moduan, aberastasuna adierazle bat da, eduki ekonomikoa duten ondasun eta eskubideen titulartasunetik eratorria den ahalmen ekonomikoa neurtzen duena. Horrenbestez aberastasunak ondasun

eta eskubideen titular diren pertsona fisikoentzat dakarren ahalmen ekonomiko gehigarria zergapetzen du.

Historian zehar, Sektore Publikoaren finantzapen beharrak handitu diren heinean ondarea eta gaitasun ekonomikoa zergapetzeko formula ezberdinak erabili izan dira, horren erakusle dira ondarearekin lotuta dauden zerga ezberdinak. Lan honetan ondarearen gaineko zerga aztertuko dugu, sorreratik hasi eta izan duen azken erreformaraino aztertuz. Historikoki oso zerga eztabaidatua izan da eta ondorioz zer eta zergatik kritikatu zaion aztertuko dut, zeintzuk izan diren une ezberdinetan hartu diren neurriak eta hartutako neurri horien aurrean doktrinako alderdi ezberdinek izandako jarrerak azalduko dira. Horretarako ezinbestekoa da zerga honen bilakaera historikoa aztertu eta ulertzea, orohar, Espainian izan duena eta zehatzago Lurralde Historikoetan.

Gure zerga sisteman ondarean zergapetzea 1977an egin zen erreforma fiskalean jaso zen lehen aldiz, hain zuzen ere, Azaroaren 14ko 5/1977 “Medidas Urgentes de Reforma Fiscal” legean (*“5/1977 Medidas Urgentes de Reforma Fiscal”, 1977*) pertsona fisikoen ondarearen gaineko ezohiko zerga arautzen zen. Zerga beraren izenak adierazten duen bezala izaera larriko zerga erreforma izan zen, ezohikoa, salbuespenekoa eta iragankorra. Hau da, lehenago esan bezala gure lurraldean pertsona fisikoen ondarea lehen aldiz izaera orokor eta aldizkakoz zergapetu zuen zerga. Paradoxikoa den arren ez ohiko izaeradun tributu hau izan da egonkorrenetako bat eta 1991an lege berria ezarri zen arte ia bere horretan mantendu zena.

Euskal Autonomi Erkidegoa eta Nafarroari dagokionez, urte berean jarri zen indarrean Ondarearen gaineko Zerga. Hori Kontzertu Ekonomikoak ahalmentzen du, izan ere, lurralde hauei zerga sistema propioa, ezarri eta garatzeko eskumena aitortzen zaie.

- Aurreko puntuei jarraiki, ondarea zergapetzen zuen lehen zerga hori hamalau urtetan zehar indarrean egon ondoren 19/1991 Legea (*19/1991*

Legea, ekainaren 6koa, Ondarearen gaineko Zerga) onartu zen, zein 1992ko urtarrilaren 1etik aurrerako efektuekin indarrean sartu zen. Gipuzkoaren kasuan abenduaren 27ko 14/1991 Arau Foralarekin Ondarearen Gaineko Zerga (*Gipuzkoako Foru Aldundia, 1991*) onartu zen.

- Bizkaiko kasuan abenduaren 17ko 11/1991 Arau Forala (*Bizkaiko Foru Aldundia, 1991*) izan zen.
- Araban aldiz abenduaren 11ko 23/1991 Arau Forala (*Arabako Foru Aldundia, 1991*)
- Nafarroan berriz azaroaren 19ko 13/1992 Lege Forala (*Nafarroako Gobernua, 1991*)

Esan beharra dago ondarearen gaineko zerga honen ezarpenak izan zuen historia laburrean zehar zentzu helburua bete zuela. PFEZ eta “Ondorengotza eta Donazioen” gaineko zergen osagarri gisa ere jardun zuen tributu hauen gestio lanak erraztu baitzituen errenta eta ondarearen gaineko kontrola eramanez. Zerga honen helburua bigarren maila batean diru biltzailea eta aberastasunaren zergapetze gehigarri bat egitea izan zen.

Ondorioz zerga honek ez zuen oinarrizko izan beharko litzatekeen helburuarekin betetzen eta urte batzuk geroago, 4/2008 Abenduaren 23ko Legearekin (*4/2008 Legea, abenduaren 23koa, Ondarearen gaineko Zerga indargabetzen duena “por la que se suprime el gravamen del Impuesto sobre el Patrimonio, se generaliza el sistema de devolución mensual en el Impuesto sobre el Valor Añadido, y se introducen otras modificaciones en la normativa tributaria”*) eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako efektuekin, Pertsona Fisikoen Ondarean zergapetzea indargabetu zen Estatu mailan, kuota osoaren gaineko %100 hobaria ezarriz. Gipuzkoan abenduaren 23ko 4/2009 Foru Arauko (*Gipuzkoako Foru Aldundia, 2009*) lehen xedapen indargabetzailearen bidez deuseztatu zen aurreko Foru Araua, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako efektuekin.

- Bizkaian indargabetze hau abenduak 10eko 7/2008 Foru Arauko (*Bizkaiko Foru Aldundia, 2008*) lehen xedapenaren bidez egin zen, 2008ko urtarrilaren 1etik eraginak zituelarik.
- Araban aldiz, abenduaren 22ko 22/2008 Arau Foraleko (*Arabako Foru Aldundia, 2008*) lehen xedapen indargabetzailearen bidez indargabetu zen, 2008 urtarrilaren 1erainoko atzera eraginkortasunez.
- Nafarroako kasuan, abenduaren 24 ko 22/2008 Lege Forala “De modificación de diversos impuestos y otras medidas tributarias” izenarekin (*Nafarroako Gobernua, 2008*), 2008ko urtarrilaren batetik eragina izanik.

Indargabetze honen ondorengo urteetako egoera ekonomikoa aski ezaguna da egun. Eraikuntzako krisiari, krisi ekonomiko eta finantzarioari ustelkeria ekonomiko zein politikoa gehituz, Estatuaren diru-kutxak hutsik utzi zituen. Egoera honi aurre egin eta berriro ere diru kutxa horiek betetzeko helburuarekin zergak igo eta aurretiaz indargabetuak zeudenak berrezartzea erabaki zen, horien artean Ondarearen gaineko zerga, bai Estatuan baita Lurralde Historikoetan ere. Estatu mailan irailaren 16an, 13/2011 Errege Dekretu Legearen bidez Ondarearen gaineko zerga (*13/2011 Errege Dekretua, irailaren 16koa, Ondarearen gaineko Zerga behin behineko izaerarekin berrezartzen duena, 2011*) berrezartzen da, izaera iragankorarekin. Aipatutako arau honen sarreran zerga hau berrezartzearen arrazoiak azaltzen dira: “Egoera ekonomikoaren egonkortasuna bermatzeko eta berreskuratze eta enplegua sustatzeko diru sarrera publikoak handituko duten zerga neurriak hartzea behar da”. Aldaketa hauen artean ekitatearen printzipioa ezinbestekoa da, zerga biltzea handiagoa izateko gaitasun ekonomiko handiagoa duten norbanakoen aldetik eta krisi ekonomikoko irteera errazteko.

Ondarearen gaineko Zerga berrezartzen duen abenduaren 26ko 6/2011 Foru Araua (*Gipuzkoako Foru Aldundia, 2011*) onartzeak berarekin ekarri zuen 2009tik aurrera indargabetutako Ondarearen Gaineko zerga berriro abian jartzea. Garai hartako legegileak beharrezkoa ikusten zuen, hitzaurrean

jasotzen zen bezala, garaiko egoeretan, non krisi egoerak, alde askotatik, ordura arte ezagutu ez zen tamaina hartu baitzuen, zerga politikarako neurri berriak hartzea, ongizate estatuari eutsi ahal izateko. Horretarako beharrezkoa zen neurri sakonak hartzea, alegia, “gehiago duenak gehiago eman beharra” sistemari. Horretarako funtsezko tresna da Ondarearen gaineko Zerga, baina zerga honek 2008.urtean diseinatu zegoen eran gauza asko zituen hobetzeko, nola justizia tributariotik begiratuta, hala ikuspegi teknikitik hartuta. Hala ere, zerga lehenbailehen berrezarri beharra zegoenez (hain zuzen ere 2011.urteko abenduaren 31 baino lehen, zergaren sortzapena orduan baita) guztiz ezinezkoa zen zerga berri bat data hori baino lehen diseinatu, tramitatu eta onartzea. Horregatik erabaki zen zerga “zaharra” berrezartzea, baina bi urtetarako soilik. Dena den, hainbat aldaketa txiki egin ziren. Besteak beste, ohiko etxebizitzagatik salbuespena 300.000€raino igotzea eta salbuespen minimoa 700.000€tan ezartzea.

- Bizkaian “Ondarearen Gaineko Zerga” 2011ko abenduaren 28an berrezarri zen 4/2011 Foru Arauaren (*Bizkaiko Foru Aldundia, 2011*) bidez.
- Araban aldiz, 2011ko abenduaren 22an eman zen berrezarpena 19/2011 Araua Foralaren (*Arabako Foru Aldundia, 2011*) bidez.
- Nafarroan abenduaren 28ko 20/2011 Lege Forala “De modificación de impuestos y otras medidas tributarias” (*Nafarroako Gobernua, 2011*) izenarekin eta 2011ko ekitaldirako eragina izan zuen.

Hartutako konpromisoaren ondorioz, abenduaren 18ko 10/2012 Foru Arauak (*Gipuzkoako Foru Aldundia, 2012*) zerga berri bat ezarri zuen, “Aberastasuna eta Fortuna Handien Gaineko Zerga, hain zuzen ere, lan honen abiapuntu eta oinarri izango dena.

Zerga honek helburu nagusiak hiru dira. Alde batetik, aberastasuna zergapetzean, eduki ekonomikoa duen ondasun eta eskubideen efizientzia hobetzea, haiek erabili gabe egotea edo espekulaziozko erabilera saihestuta. Horrenbestez, aberastasunaren erabilera produktiboa sustatzen da,

espekulaziozko beste erabilera batzuen aurrean. Bestetik, zentzu eta kontrol helburua du. Azkenik, izaera progresiboagoa ematen dio zerga sistema osoari.

Aipaturiko helburuei erantzunez zerga berri honen ezarpenak bere baitan barneratu zituen aldaketa garrantzitsuenak ondorengo hirurak dira:

- Tarifa: Zerga tasa moderatuagoak ditu eta bat dator zerga honen kuota osoari “babes fiskala” edo “kuota osoaren muga” ez aplikatzearekin; horrek progresibotasun handiagoa ematen dio. Zerga honetako tasa aplikagarri maximoak gainontzeko lurralde historikoetako tasa maximoekin alderatzen baditugu, murriztapena nabarmena da.
- Jarduera ekonomikoei atxikitako elementuegatiko eta entitate jakin batzuetan akzioak eta partaidetzak izateagatiko salbuespenaren desagerpena. Izan ere, aurretiaz indarrean zegoen Ondarearen Gaineko Zergan eta baita Bizkaia, Araba eta Nafarroako (2015eko Abenduaren 31n) lurralde historikoetan ere, baldintza jakin batzuk bete ezker, zergapetzetik salbu ziren. Hala ere, elementu hauek ez dira erabat zergapetuak, izan ere, AFHZak %75eko hobaria aurreikusten du.
- Kuota osoaren mugaren desagerpena: Aurretiaz ezarria zegoen zergan bi kuota osoen baturak ezin zuen PFEZren oinarri zergagarria %60an gainditu.

Orain arte aztertu dugun zergak hainbat berrikuntza ekarri zituen, baina 2015eko hauteskundeen ondoren Batzar Nagusietan agintari berriak jarri zirenean berrikuntza horietako batzuk berrikusi egin behar zirela ulertu zuten. Horretarako Abenduak 23ko 6/2015 Foru Araua (*Gipuzkoako Foru Aldundia, 2015*) onartu zen aipatu berri dugun “Aberastasuna eta Fortuna Handien Gaineko Zerga” aldatzen duena abenduaren 24an. Urte horretako urtarrilaren 1etik eraginak dituena.

Indarrean jarri zen erreforma honek AFHZ-ren gain eragin zituen aldaketa nagusienak ondorengoak izan ziren:

- Aurreko Foru Arauan jarduera ekonomikoari atxikitako elementuak eta entitate jakin batzuetako akzioak eta partaidetzak baldintza jakin batzuk bete ezkerok %75 hobaria izatetik, erabat salbuetsita izatera igarotzen dira, beti ere araudi berriak ezarritako baldintzak betetzen badira. Zergadunen kasu gehienetan aldaketa honek hobekuntza suposatzen du, hau da, egin beharreko ordainketa txikitzen du.
- Zerga oinarri kalkulatzeko balorazio arauari dagokienez, berrikuntza garrantzitsu bat sartzen da ondasun higiezinaren eremuan. Horren arabera, zerga oinarrian hiru balioetako handiena aintzat hartzen zuen sistemaren ordean balio bakarra, balio katastrala, kontuan hartuko duen beste sistema bat ezartzen da, Bizkaia eta Arabako lurralde historikoekin harmonizatzeko bidean. Honen ondorioz, desagertu egiten dira justizia tributario horizontaleko arazoak.
- Tarifa: Tasa aplikagarriak igotzearen ondorioz oinarri likidagarriko eremu guztietarako ordaindu beharreko zenbatekoa igotzen da, 500.000€-tik beherako zenbatekoetarako izan ezik. 3.000.000€-tik gorako zenbatekoari %1eko tasa aplikatuzetik %1,3 aplikatzera pasatzen da 3.100.000€-tik gorakoentzat eta azken eremu bat gehitzen da, 6.300.000€-tik gorakoena %1,5eko tasa ezarriz. Tarifen igotzeak suposatzen duen ordainketa gehikuntza zergadunentzat salbuespen batzuekin konpentsatua geratu litekeen arren, orokorrean zergadunentzat ordainketaren gehikuntza eragingo du. Ondorioz, tarifen igotzeak zergadunen ordainketa handitzen badu ere, erreforman ez da PFEZ-ren eta AFHZ-ren kuota osoaren muga ezartzen.

Foru arau honetan premiarik handienaz egin beharreko aldaketak jaso ziren hau da zergaren erreforma partzial bat egin zen, baina legegileak azaldu duenez ondarearen tributazioari buruzko arau aldaketak ez dira honekin bukatuko. Zerga berri bat sortu nahi du, esaterako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarekin batera osatzen den muga jasoko duena.

ABANTAILAK ETA DESABANTAILAK

Testuinguru honetan beharrezkoa deritzot beste herrialdeetan esaterako Europar Batasunean zerga honekiko duten jarrerak zer nolakoak diren aztertzea. Egun, gutxi dira Europar Batasunean ezaugarri honetako zergarik mantentzen duten herrialdeak. “Taxation Trends in the EU”-eko (*European Comission, Eurostat*) datuetan oinarrituz ekonomia saileko web orri batean 2014an argitaratu zenaren arabera, soilik Frantzia, Suitza, Finlandia, Luxenburgo eta Grezia dira zerga hau aplikatzen duten bakarrak, nahiz azken herrialde honena ez izan zehazki figura bera (*España, uno de los cinco países del la UE que aún tiene Impuesto de Patrimonio, 2014*), (“Taxation Trends in the EU”; 21-45 orrialdeak).

Beste herrialde batzuk ordea zerga indargabetu edo ezabatu dute, Japonia(1953), Austria(1994), Irlanda, Danimarka eta Alemania(1997), Finlandia(2006).

Esan bezala, Europar Batasuneko gainontzeko herrialdeetan urte ugari dira aplikatzen ez dela, zergaren izaera erabat zaharkitua geratu dela argudiatuz. Hala ere, Espainian mantendu arren, ez da inolaz ere ondarearen gaineko zergen bidez bilketa handiena lortzen duen herrialdeetako bat. “Taxation Trends in the EU”-en (*European Comission, Eurostat*) azken txostenean argitaratu zenaren arabera Espainia Europar Batasuneko hogeita zazpi herrialdeen batz bestekoaren azpian kokatzen da, ondarea zergapetzen duten zerga bilketari dagokionean, herrialde bakoitzeko Barne Produktu gordinarekiko (*España, uno de los cinco países del la UE que aún tiene Impuesto de Patrimonio, 2014*), (“Taxation Trends in the EU”; 21-45 orrialdeak)

Zergaren aldekoek aberastasunaren birbanaketan laguntzen duela defendatzen dute, aldiz kontrakoek, helburu hau betetzen ez duela azpimarratzen dute eta are gehiago pobretzea dakarrela, kapitalen ihesa dela eta. Batzuek zein besteek, zerga honen ezarpenaren abantailak eta desabantailak zein diren argi azaltzen dute.

Ondarearen zergaren ezarpenaren aldeko argudioak:

- Sistema tributario justuago bat egiten du. Ondareak suposatzen duen gaitasun ekonomikoa zergapetzen da.
- Sistema progresiboagoa egiten du.
- Kapitaleko errenten zergapetzea handiagotzen da, laneko errentekin alderatuz gero.
- Kapitaleko errenten kontrol handiago bat suposatzen du, zerga iruzurra ekiditen lagunduz.

Zergaren ezarpenaren kontrako argudioak aldiz ondorengoak dira:

- Kapitalen ihesa eta fortuna handiena (nazionalak zein atzerritarrak) suposa lezake eta ondorioz enplegua galtzea eta azkenik, zerga bilketa txikiago bat.
- Aurrezkiaren pizgarria kentzen du.
- Aktibo likidoen balorazioa hala nola higiezinena, arbitrarioa gerta liteke.
- Lehenago, erosketa unean, zergapetuak izan ziren ondasunak berriz zergapetzen dira. Nahiz eta zergaren xedea eta objektua desberdina den, zergapetze bikoitzaren arazoa sortuz.

2. XEDAPEN OROKORRAK

2.1. IZAERA ETA XEDEA

Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zerga zuzeneko tributu bat da, izaera pertsonalekoa eta pertsona fisikoen aberastasuna zergapetzen duena, foru arauan bertan adierazten den bezala. Pertsona fisikoen aberastasuna euren titularitzapean dauden ondasun eta eskubide ekonomiko guztiek osatzen dute, euren balioa gutxitzen duten zamak eta kargak zein pertsona fisikoak dituen zorrak eta obligazio pertsonalak kenduta.

Aztertzen ari garen zergaren ezaugarriak ondorengoak dira:

- Zuzena: Aberastasuna zergapetzen duten beste zerga batzuetan ez bezala, ondasun eta eskubideen titulartasuna edo jabetza zergapetzen da.

- Pertsonala: Zergaduna ondasun eta eskubideen titular den pertsona fisikoa izango da, bere ondare guztia osotasunean zergapetuz. Hemen ez bezala, zerga errealek ondasun eta eskubideak zergapetzen dituzte, hauen titulartasuna kontuan izan gabe.

- Progresiboa: Zerga zorra kalkulatzeko tarifa progresibo bat erabiltzen da, zergadun bakoitzaren ondare garbiaren arabera.

- Arrunta: urteroko sortzapena du.

- Zergapetze indibiduala: Zergapetzeko era indibiduala da, beraz, ezin da beste zerga batzuen kasuan bezala baterako aitortpena egin. Pertsona bakoitza era indibidual batean zergapetua izango da, beste pertsona eta erakundeak albo batera utziz.

- Osagarritasuna: Azkenik esan beharra dago AFHZ-k zerga osagarri baten papera hartzen duela, batez ere, PFEZ-rena, modu horretan iruzur fiskala ekidin eta ondare errenten gaineko kontrol handiago bat ezarriz.

2.2. APLIKAZIO EREMUA

Kontzertu ekonomikoan jasotzen denari jarraituz AFHZ itundutako zerga da eta araudi autonomoari lotuta dago. Lotura puntua araudiari, ordainarazpenari eta inspektzioari dagokionez zergadunaren ohiko egoitza da: a) Pertsona fisikoei dagokionez PFEZ Gipuzkoan ordaintzea dagokienez; b) Lurralde espainiarrean egoiliarrek ez direnen kasuan, Gipuzkoan tributatzea aukeratzen badute, obligazio pertsonalaren arabera eta c) Espainian egoiliarrek

ez diren pertsona fisikoak obligazio errealaren arabera tributatu behar badute eta baldin eta ondasun eta eskubide horien baliorik handiena Gipuzkoan kokatuta dagoenean.

Ohiko egoitza non dagoen zehazteko PFEZ eta Kontzertu Ekonomikoa hartuko dira kontuan.

2.3. NAZIOARTEKO ITUNAK ETA HITZARMENAK

Foru arau honetan jasotakoak ezingo du eragotzi Espainiako barne ordenamenduaren parte diren nazioarteko itun eta hitzarmenek xedatutakoa. Konstituzioko 96.artikuluaren (*Espainiako Konstituzioa, 1978ko abenduaren 29an, Estatuko Boletín Ofizialeko 311.zenbakian argitaratua*) jasotzen denaren arabera azken hauek arau juridikoen indarra baitute Boletín Ofizialean argitaratzen diren unetik.

3. ZERGA GAIA ETA ZERGADUNAK

3.1. ZERGADUNAK

Zerga honen zergadunak dira: Obligazio pertsonalagatik zergadun egoiliarak eta obligazio errealagatik ez egoiliarak.

Lehenengoak zerga aurkeztera behartuak egongo dira 700.000€ (800.000€ Bizkaia, Araba eta Nafarroako kasuetan) baino handiagoko oinarri zergagarria dutenean. Bigarrenen kasuan autolikidazioa aurkeztera behartuak egongo dira oinarri likidagarria 200.000€tik (Obligazio erreal hau Gipuzkoako araudietan soilik jasotzen da) gorakoa dutenean. Era beran, nahiz eta aurreko bi zirkunstantzietako bat gertatu ez, autolikidazio bete beharra egongo da zergadunaren ondasun eta eskubideen balioa 3.000.000€tatik gorakoa denean.

Bizkaiko eta Arabako araudiek kopuru hori 2.000.000€tan finkatzen dute eta Nafarroakoak aldiz, 1.500.000€an ezartzen du muga.

Taula 1: Autolikidatzeko betebeharra. Iturria: Lantze propioa

AUTOLIKIDATZEKO BETEBEHARRA					
	GIPUZKOA (AFHZ 2014-12-31 indarrean)	GIPUZKOA (AFHZ 2015-12-31 indarrean)	BIZKAIA	ARABA	NAFARROA
OBLIGAZIO PERTSONALA	700.000	700.000	800.000	800.000	800.000
OBLIGAZIO ERREALA	200.000	200.000	-	-	-
ONDAREA	3.000.000	3.000.000	2.000.000	2.000.000	1.500.000

3.2. ONDARE ELEMENTUEN ESLEIPENA

Zergaren ezaugarriak aztertzerakoan AFHZ zerga indibidual bat dela esan dugu. Hori dela eta ondasun eta eskubideak titulartasun juridikoari buruz aplikagarri diren arauen arabera esleituko zaizkie zergadunei. Horretarako zergadunak zein administrazioak aurkitutako frogak hartuko dira kontuan. Arau orokorrez gain, garrantzia berezia izango dute ezkontzako araubide ekonomikoak, Ondare Erregimena arautzen duten xedapen eta itunak, etab.

3.4. ZERGAREN SORTZAPENA

Zerga urte bakoitzeko Abenduaren 31n sortuko da eta zergadunak data horretan bere titulartasunpean duen aberastasuna zergapetuko da.

4. SALBUETSITAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEAK

Zerga honetan salbuetsiak egongo dira ondorengoak:

- Zergadunaren ohiko etxebizitza, 300.000 euroraino gehienez. Ohiko etxebizitzaren izaera lortu ahal izateko, PFEZ arautzen duen foru arauak ezartzen dituen baldintzak bete beharko dira. Honi jarraiki, zergadunaren ohiko etxebizitzatzat hartuko da, bertan gutxienez hiru urtez egoitza izan badu, aparteko arrazoiak tarteko direnean izan ezik.

Horrez gain, zerga pertsonal bat izanik, etxebizitzaren titularitatea eta ezkontzako erregimen ekonomikoa kontuan hartu beharko dira. Hori dela eta, ezkontide batzuk ohiko etxebizitza beraren titular badira Gipuzkoan eta hau 600.000 edo gutxiagoan baloratua badago, etxebizitza hau erabat salbuetsita geratuko da, izan ere, ezkontide bakoitzari etxebizitzaren erdia egotziko zaio. Etxebizitzaren baloraziorako kontuan hartu beharreko baldintzak eta balorazio irizpideak, hurrengo puntuetan landuko dira.

Ondorengo taulan lau lurralde historikoetako ohiko etxebizitzagatiko salbuespenak adierazi dira:

Taula 2: Ohiko etxebizitzagatiko salbuespena. Iturria: Lantze propioa

OHIKO ETXEBIZITZAGATIKO SALBUESPENA				
GIPUZKOA (AFHZ 2014-12-31 indarrean)	GIPUZKOA (AFHZ 2015-12-31 indarrean)	BIZKAIA	ARABA	NAFARROA

300.000 €	300.000 €	400.000 €	400.000€	250.000€
-----------	-----------	-----------	----------	----------

- Etxeko ostilamenduak (etxeko zein efektu pertsonalak, tresneria, erabilera partikularreko ondasun higigarriak, 10.000€-tik gorako balioak salbuespenetik kanpo geratzen direlarik)
- Eduki ekonomikoko eskubideak, borondatezko aurreikuspeneko entitateen kasuan, pentsio planen kasuan, aurreikuspen plan aseguratuen edo enpresa gizarte aurreikuspeneko planen kasuan.
- Euskal Kultur Ondareko ondasunak
- Espainiako Ondare Historikoa osatzen duten ondasunak.
- Autonomia erkidegoetako ondare historikoa osatzen duten ondasunak,
- Arte-gaiak, zaharkinak eta bildumak, haien balioa erregelamenduz ezartzen diren zenbatekoetara iristen ez denean.
- Jabetza intelektual edo industrialetik eratorritako eskubideak, egilearen ondarean dauden bitartean, eta jabetza industrialaren kasuan, jarduera ekonomikoei atxikita ez daudenean.
- Euskal Herrian kokatuta dauden espezie autoktonoko basoak. Salbuespen hau 100.000 euroraino aplikatuko da gehienez. (Soilik Gipuzkoan)
- Energia berriztagarrien instalazioak. Salbuespen hau 100.000 euroraino aplikatuko da gehienez. (Soilik Gipuzkoan)
- Jendeak oro har erabiltzekoak diren bidexka, terreno eta instalazioak, haien onura kasuan kasuko herri Administrazioak aitortu duenean. Salbuespen hau aplikatzeko beharkizunak erregelamenduz ezarriko dira. (Soilik Gipuzkoan)
- Nekazaritza, abeltzaintza, erlezaintza edo basogintzako jardueretara nagusiki bideratutako ondasun eta eskubideak, baldin eta jarduera horiek pertsona fisikoek egiten badituzte pertsonalki eta zuzenean, eta ondasun eta eskubide horiek ez badaude atxikita, zergadunaren errenta iturri nagusia diren jarduera. (Soilik Gipuzkoan)

- Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari Foru Arauak 13. artikuluan xedatutakoaren arabera salbuetsita dauden etekinen baloreak.
- Pertsona fisikoek beren jarduera ekonomikoa egiteko behar dituzten ondasun eta eskubideak eta merkatu antolatuetan kotizatuta edo kotizatu gabe dauden entitateen kapital edo ondareko partaidetzen gaineko jabetza osoa, jabetza soila eta biziarteko usufukturako eskubidea.

Aztertzen ari garen gainontzeko araudi guzietan, aurretiaz aipaturiko salbuespenez gain, beste bat gehitzen da, zehazki 2014ko abenduaren 31n indarrean zegoen AFHZrekin desberdintasun handi bat sortzen duena: Jarduera ekonomikoei atxikitako ondasunak eta partaidetzengatiko salbuespena.

AFHZn, 2014ko abenduaren 31an indarrean zegoena, salbuespena jaso ez arren, ez dute beste ondasun eta eskubide guztien tratua bera. Baina kasu honetan %100eko salbuespena beharrean, %75eko hobaria aplikatzen zaie, ondasun eta eskubideei kuota osoan dagokien zatian.

5. OINARRI ZERGAGARRIA

Zerga oinarria zergadunaren aberastasuna da eta bere kalkulurako ondorengo balio hauen arteko diferentzia erabiliko da:

(+) Ondasun eta eskubideen balioa, zama eta karga errealeen zenbatekoa kenduta azken hauek aipaturiko ondasun eta eskubideen balioa txikitzen dutenean.

(-) Zergadunaren zorrak eta obligazio pertsonalak.

Zorren kasuan ondasun eta eskubide salbuetsiak eskuratzeko hartutako zorrak eta obligazioak ez dira inoiz kengarriak izango. Salbuespena partziala denean aldiz, haren zati proportzionala izango da kengarri. Zerga ordaintzeko

obligazioa errealaren denean, AFHZri lotuak dauden ondasun eta eskubideetan inbertitutako kapitalengatik sortutako zorrak bakarrik izango dira kengarriak.

Jarraian ondasunak baloratzeko irizpide ezberdinak aztertuko dira eta lanean zehar aipatu ditugun araudien arteko diferentziak landuko dira:

5.1. ONDASUN HIGIEZINAK

Jarraian, aztertzen ari garen arauak, 2014ko Abenduaren 31n indarrean zegoen AFHZren foru arauak, higiezinak nola baloratzen dituen aztertuko da. Ondoren, aztergai diren gainontzeko araudi aplikagarriak zein balorazio sistema duten aplikagarri aztertuko da.

5.1.1. ONDASUN HIGIEZIN HIRITAR EDO LANDATARRAK

- **Gipuzkoan, 2014ko Abenduaren 31n indarrean zegoen AFHZren forua** arauaren arabera ondasun higiezinaren kasuan ondorengo hiru balioetatik handienarekin konputatuko dira:
 - Balio katastrala
 - Beste zerga batzuen ondorioetarako Administrazioak egiaztatu eta onartutako balioa
 - Erosketa prezioa, kontraprestazioa edo balioa

Historikoki eta baita gaur egun ere zenbait araudik balorazio sistema bakarra erabiltzen dute higiezinak balioa zehazteko. Baina jakina denez sistema honek hainbat arazo sor ditzake, esaterako, higieziinei ematen zaien balioak zaharkituak geratzea hauek eguneratzeko zailtasunak sortzen direlako eta sistema hauetatik eratortzen diren balioak merkatuko balioetatik defasaturik geratzea. AFHZ onartzean legegileak balorazio sistema honekin eta bere akatsekin amaitu nahi izan zuen. Horretarako balorazio hirukoitzaren

sistema berri bat sortu zen, modu honetan higiezinaren balioa merkatuko balioetatik hurbilago egotea lortuz. Erosketa prezioak edo Administrazioak egiaztatutako balioek aukera emango dute duela gutxi eskuratutako higiezinetan. Aldiz aurkakoa gertatzen da duela urte asko eskuratutakoekin, hauetan erosketa prezioa oso txikia izan ohi da eta ondorioz balio katastralak emango digu balio “errealena”.

Hala ere, balorazio irizpide aniztasun honek bere arazoak ekar ditzake, izan ere, antzeko edo berdinak diren higiezinaren titular diren bi zergadunek kopuru ezberdina ordaindu dezakete, balorazioetan egon litezken desberdintasunengatik eta ondorioz justuak ez diren egoerak sortuz.

- **Gipuzkoan 2015eko Abenduaren 31n** indarrean zegoen **AFHZ**ren forua arauan oinarrituz ondasun higiezin hiritar eta landatarrak beren balio katastralaren arabera baloratuko dira.

Higiezin hauek balio katastralik izango ez balute zergaren sortzapen unean edo atzerrian kokatuak baleude, erosketa prezio edo balioaren arabera konputatuko dira, dagokien koefizienteekin eguneratu ostean.

- **Bizkaian** ondasun higiezinaren balorazioa ondorengo eran egiten da:
 - Higiezinak Bizkaiko lurraldea kokatuak badaude: Orokorrean, Eslai daitekeen gutxiengo balioaren %50a hartuko da. Balio hau Bizkaiko Foru Aldundiak higiezinak baloratzeko ezartzen duen balioa da, hipoteka maileguak emateko eginiko tasazioetan oinarrituta. Bizkaiko lurralde historikoan balio katastralak aurreko mendeko 60.hamarkadatik eguneratu gabe zeudenez, desoreka nabarmenak zeuden balio katastrala eta merkatu balioen artean. Bizkaiko Foru Aldundiak balio katastralak eguneratzeko burutu beharreko ikerketak eginak dauzka jadanik, baina, bere onarpena atzeratzen ari da, testuinguru politiko egokia egokitu artean. EGB indarrean jarri aurretik balio katastrala zen

irizpide erabiliena ondasun higiezin oinarri zergagarria zehazteko. EGB onartu zenean higiezin batzuen balioa lehendik finkatua zegoen balio katastralaren zenbatekoa hamar aldiz handiagoa izatera igaro zen. Egoera horren aurrean Bizkaiko Batzar Nagusien iritziz balorazio irizpide aldaketa soil batek ezin zuen urte batetik bestera zerga zamaren horrenbesteko hazkuntza eragin. Hori horrela, 2013, 2014 eta 2015 ekitaldietan salbuespen gisa, Eslei daitekeen gutxiengo balio horren %25a erabiliko da.

- Higiezinak Bizkaia ez den beste lurralderen batean kokatuak badaude: Balio katastralean baloratuko dira. Balio katastralik izango ez balute zergaren sortzapen unean edo atzerrian kokatuak baleude, erosketa prezioaren %50 hartuko da baliotzat, dagokien koefizienteekin eguneratu ondoren. Aurreko kasuan bezala, 2013, 2014 eta 2015 ekitaldietan, erosketa balioaren %25ean baloratuko da.

Esan berri den bezala, Bizkaiko Lurralde Historikoan, balio katastralak eguneratu gabe zeudelako ezarri zen Eslei daitekeen Gutxiengo Balioa. Dena den, balio katastralak eguneratzeko lanetan ere jarraitu zuten administratibotik. Horren emaitza izan da, 2016ko maiatzaren 18an onartutako Ondasun Higiezin Zergaren Foru Araua (*Bizkaiko Foru Aldundia, 2016*) onartzea. Arau honetan, Bizkaiko ondasun higiezin balio katastralak eguneratzen dira, zeintzuk 2017. urtean jarriko diren indarrean eta beraz baliteke, Ondarearen gaineko Zergan ere eraginak izatea, legegileak EGB ordezkatzeari erabakitzen badu.

- **Arabako** higiezinak balio katastralaren arabera konputatuko dira. Balio katastralik izango ez balute zergaren sortzapen unean edo atzerrian kokatuak baleude, erosketa prezioa hartuko da baliotzat, dagokien koefizienteekin eguneratu ondoren.
- **Nafarroan** ondasun higiezin kasuan ondorengo hiru balioetatik handienarekin konputatuko dira:
 - Balio katastrala

- Beste zerga batzuen ondorioetarako Administrazioak egiaztatu eta onartutako balioa
- Erosketa prezioa, kontraprestazioa edo balioa

Sistema honen abantaila eta desabantailak Gipuzkoan 2014ko abenduaren 31n indarrean zegoen araudiaren inguruan aipatu diren berberak izango dira, sistema berdina baita.

Taula 3: Ondasun higiezinaren balorazio irizpideak. Iturria: Lantze propioa

HIGIEZINEN BALORAZIOA				
GIPUZKOA (AFHZ 2014-12-31 indarrean)	GIPUZKOA (AFHZ 2014- 12-31 indarrean)	BIZKAIA	ARABA	NAFARROA
Hiru balioetatik handiena: - Katastrala - Administrazioak egiaztatutakoa - Erosketa prezioa	- Balio katastrala, Egon ezean, - Erosketa prezioa	Higiezinak Bizkaian: - %50* EGB Higiezinak Bizkaiatik kanpo: - Balio katastrala Egon ezean, - Erosketa balioaren %50*	- Balio katastrala, Egon ezean, - Erosketa prezioa	Hiru balioetatik handiena: - Katastrala - Administrazioak egiaztatutakoa - Erosketa prezioa

* 2013, 2014 eta 2015 ekitaldietan portzentaia erdira murriztuko da, hau da, %25a

5.1.1.1. ADIBIDE PRAKTIKOA

Higiezin balorazioari dagokionean azaldu berri ditugun araudietako kontzeptuak argiago uzteko, zergadun bat oinarritzat hartuz adibide praktikoa bat aurkeztuko da.

Adibideak planteatzeako X zergaduna hartuko dugu subjektu pasibotzat eta demagun ondorengo higiezin titularra dela:

Azpeitian Loiola auzoko 25 zenbakian ezaugarri berdineko (90m²) bi pisu, A eta B.

Getxo kanpoaldeko urbanizazio batean etxebizitza (180m²)

Hendaian gela bakarreko pisu txiki bat (35m²)

Taula honetan oraintsu aipatu ditugun etxebizitzaren balorazio ezberdinak adierazi dira:

Taula 4: Adibide praktikoko ondasun higiezin balorazioa. Iturria: Elaborazio propioa

ONDASUN HIGIEZINEN BALORAZIOA			
	Balio katastrala	Eslei daiteken gutxieneko balioa (%25)	Erosketa prezioa
Etxebizitza (Getxo)	60.000€	125.000€ (500.000)	550.000€
Pisua A (Azpeitia)	285.000€	-	300.000€
Pisua B (Azpeitia)	285.000€	-	350.000€
Pisua (Hendaia)	-	-	200.000€

Aipatu duguna kontuan izanda, kasu bakoitzean X zergaduna lurralde historiko eta ekitaldi jakin horretako zergaduna bailitzan egingo da oinarri zergagarriaren kalkulua.

- Gipuzkoa (2014ko Abenduaren 31n indarrean zegoen araudia):

Demagun X zergaduna Mutrikun bizi dela, bere gurasoekin eta ohiko etxebizitzat duten pisua bere gurasoen titulartasunpean dagoela. Bere titulartasunean dituen ondasun higiezin guztiak aipaturiko hiru balioen artean handienaren arabera baloratuko dira.

Taula 5: Adibide praktikoa: Gipuzkoa (2014 AFHZ) higiezinaren balorazioa. Iturria: Elaborazio propioa

Gipuzkoa (2014 AFHZ)	
Etxebizitza (Getxo)	550.000€
Pisua A (Azpeitia)	300.000€
Pisua B (Azpeitia)	350.000€
Pisua (Hendaia)	200.000€
GUZTIRA	1.400.000€

Balio guztiak batuz, Mutrikun bizi den X zergadunak, 1.400.000€ egotziko lituzke bere oinarri zergagarrian.

- Gipuzkoa (2015ko Abenduaren 31n indarrean zegoen araudia):

X zergadunaren higiezinak balio katastralaren arabera baloratuko dira araudi honi jarraituz eta Hendaiaiko pisuaren kasuan, erosketa prezioan oinarrituz. Hau horrela izanik ondorengo balioak hartuko dira kontuan zergaren kalkulua egiteko:

Taula 6: Adibide praktikoa: Gipuzkoa (2015 AFHZ) higiezinaren balorazioa. Iturria: Lantze propioa

Gipuzkoa (2015 AFHZ)	
Etxebizitza (Getxo)	60.000€
Pisua A (Azpeitia)	285.000€
Pisua B (Azpeitia)	285.000€
Pisua (Hendaia)	200.000€
GUZTIRA	830.000€

Guztira, zergadun honek 830.000€ gehituko lituzke bere oinarri zergagarria.

- Bizkaia

Demagun orain X zergaduna Ondarroan bizi dela (Bizkaiko zergaduna, beraz), bere gurasoekin eta ohiko etxebizitzat duten pisua bere gurasoen titulartasunpean dagoela. Bere titulartasunean dituen ondasun higiezin guztiak Bizkaian indarrean dagoen araudiaren arabera baloratuko dira: Bizkaian kokatuak dituen higiezinak Eslei daitekeen gutxiengo balioaren %25ean baloratuko dira eta Bizkaia ez den beste edozein lekutan kokatuak daudenak aldiz, balio katastralaren arabera. Hau existitzen ez den kasuetan erosketa balioaren %25ean baloratuko dira. Ondorengo balioak lortzen dira:

Taula 7: Adibide praktikoa: Bizkaia higiezinaren balorazioa. Iturria: Lantze propioa

Bizkaia	
Etxebizitza (Getxo)	125.000€
Pisua A (Azpeitia)	285.000€
Pisua B (Azpeitia)	285.000€
Pisua (Hendaia)	50.000€
GUZTIRA	745.000€

Bizkaiko zergadun honen oinarri zergagarrian higiezinei dagokien zenbatekoa 745.000€koa litzateke.

- Araba

Kasu honetan X arabako zergaduna dela esango dugu. Bertako araudia aplikatuz ondorengo izango da bere titulartasunean dituen higiezinak izango dituzten balioak:

Taula 8: Adibide praktikoa: Araba higiezin balorazioa. Iturria: Lantze propioa

Araba	
Etxebizitza (Getxo)	60.000€
Pisua A (Azpeitia)	285.000€
Pisua B (Azpeitia)	285.000€
Pisua (Hendaia)	200.000€
GUZTIRA	830.000€

Araban bizi den zergadun honek 830.000€ pilatuko lituzke bere oinarri zergagarrian.

- Nafarroa (2015eko Abenduaren 31n indarrean zegoen araudia)

Goizuetan bizi den X zergadun Nafarraren kasuan eta bertan aplikagarria den Lege Foralaren balorazio sistemari jarraiki, ondorengoak izango dira higiezin baloraketak:

Taula 9: Adibide praktikoa: Nafarroa higiezin balorazioa. Iturria: Lantze propioa

Nafarroa (2015 AFHZ)	
Etxebizitza (Getxo)	550.000€
Pisua A (Azpeitia)	300.000€
Pisua B (Azpeitia)	350.000€
Pisua (Hendaia)	200.000€
GUZTIRA	1.400.000€

Zergadun honen oinarri zergagarrian higieziinei dagokienean 1.400.000ko zenbatekoa pilatuko luke.

5.1.1.2. ONDORIOAK

Aurreko adibideetako X zergadunaren egoera posibleak azertu ondoren bistakoa da araudi bakoitzaren arabera lortzen diren emaitzen arteko desberdintasunak:

Taula 10: Adibide praktikoa: Oinarri zergagarriaren zenbatekoa higiezinaren kontzeptuan lurralde historiko bakoitzean. Iturria: Lantze propioa

OINARRI ZERGAGARRIA (HIGIEZINEN KONTZEPTUAN)				
Gipuzkoa (2014 AFHZ)	Gipuzkoa (2015 AFHZ)	Bizkaia	Araba	Nafarroa (2015 AFHZ)
1.400.000€	830.000€	745.000€	830.000€	1.400.000€

Gipuzkoan 2014ko abenduaren 31n eta Nafarroan 2015eko abenduak 31n indarrean zeuden araudien araberrako oinarri zergagarriak balio berdinak lortzeaz gain, gainontzeko kasuekin alderatuz balio handienak hartzen dituztela. Oinarri zergagarri bera lortzen da Gipuzkoa 2015eko abenduaren 31 eta Arabako araudietan ere, baina kasu honetan aurrekoek baino balio txikiagoa lortuz. Azkenik, Bizkaiko kasuan landutako lau egoeretatik balio txikiena duen oinarri zergagarria lortzen da. Honek ez du esan nahi Bizkaiko balorazioak merkatuko balioetatik urrunen daudenak direnak, baina aurretiaz aipatu bezala higiezinak 2013, 2014 eta 2015 ekitaldietan EGBren %25ean (Bizkaikoak ez direnak, balio katastralik ez badute, erosketa balioaren %25ean baita) baloratzen direnez, ekitaldi horietan oinarri zergagarrian konputatzen den balioa nabarmen txikiagoa da.

Adibide honekin argi geratzen da higiezin jakin batzuen titularra den norbanako batek, zergaduna den garai eta lurraldearen arabera higiezinaren kontzeptuan oinarri zergagarrian konputatuko duen balioa ezberdina dela.

Horrez gain, eta lan honen oinarri den araudian zentratuz, Gipuzkoarako jarri dugun lehen adibideari erreparatu ezker, 2014ko abenduaren 31n indarrean zegoen araudiak ez ditu higiezin berdinak edo oso antzekoak dituzten

norbanakoak era berean zergapetzen. Izan ere, X zergadunak ezaugarri bereko higiezinak (Azpeitiako A eta B pisuak) izan arren oinarri zergagarri erabat ezberdinak lortzen dituzte. Izan ere, erosketa prezioan gorabeherak badaude eta hau balio katastrala baino handiagoa bada, nahiz eta higiezinak ezaugarri berberak izan ez dira berdin baloratuak izango. Ondorioz, honek justizia tributarioaren aurkako egoerak sortzen ditu, izan ere, AFHZk ondarea zergapetzea du helburu eta bi pisuen kasuan hain justu, ondarea berbera da. Zerga honen xede eta objektura itzuliz, ondare bat pilatzeak suposatzen duen gaitasun ekonomikoa da zergapetzen dena eta kasu honetan esan bezala ondarea berdina da eta ondorioz baita gaitasun ekonomikoa ere eta horrenbestez berdin zergapetuak egon behar lirateke. Hau horrela ez den unean, egoera berriro ere justizia tributarioaren aurkako izango da. Ezaugarri bereko pisu hauek erosketa unean zuten prezio ezberdinek gaitasun ekonomiko ezberdina izatea eragin zuten eta ondorioz zerga zama desberdina jasan zuten, baina beste zerga baten bidez, BEZa edo Ondare Eskualdaketen Gaineko Zerga. Ondorioz ez du zentzurik, ondarea berdina izanik jada ezberdin zamapetuak izan diren bi higiezin ezberdin zergapetzeak AFHZ kontzeptuan.

Hori dela eta, ezaugarri berdineko zergadunen artean balorazio irizpide ezberdinak erabiltzearen ondorio desberdintasun edo egoera injusturik ez sortzeko, badirudi balorazio irizpide bakar bat ezartzea gomendagarria izango litzatekeela. Lehenago aipatu den bezala, balorazio irizpide bakar horrek (ezagunean eta historikoki erabiliena izan dena, balio katastrala) hainbat arazo sor ditzake, esaterako, higieziinei ematen zaien balioak zaharkituak geratzea hauek eguneratzeko zailtasunak sortzen direlako eta sistema hauetatik eratortzen diren balioak merkatuko balioetatik desfaturik geratzea. Izan ere, jakina da balio kastroalen eguneratzeak ez direla lan erraza, izan ere, asko dira kontuan izan beharreko parametroak eta horretaz gain balio honek berak beste hainbat zergengan eragin zuzena du, adibidez, Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergan. Hori dela eta eguneratze hau konplexua izateaz gain, kontu handiz egin beharrekoa da.

Balorazio irizpide baten aldeko jarrera egokienentzat hartzen bada ere, balio kastroalak eguneratzeko sor ditzakeen zailtasunak kontuan izanik,

badirudi ez dela balorazio sistema bakartzat hartzeko sistemarik egokiena. Beraz, beste balorazio sistema bakar bat hautatu beharko litzateke, esaterako, Eslei daitekeen Gutxiengo Balioa. Sistema honekin beraz, kolpe bakar batez ekidingo genuke bai sistema anitzen eta baita balio katastrala erabiltzeak sortzen dituen arazoak ere. Are gehiago, balorazio sistema hau AFHZN egokia izateaz gain, beste batzuetarako ere baliagarria izan liteke, esaterako, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergarako.

Orain arte puntu honetan aipatu den guztia kontuan izanik eta ondasun higiezinak zerga honen oinarri zergagarrian izaten duten garrantzi erlatiboa eta kasu askotan absolutua ahaztu gabe, komenigarria litzateke (zerga hau behin betikoa izango bada) balorazio irizpideen ondorioz sortzen diren arazoak konpontzea.

5.1.2. ERAIKITZEN ARI DIREN ONDASUN HIGIEZINAK

Aberastasun balioztat hartuko da eraikuntza horretan abenduaren 31ra arte zergadunak inbertitu dituen zenbatekoak eta orubearen aberastasun balioa. Bizkaiko araudiaren kasuan aldiz, zergadunak abenduaren 31 arte inbertitu duen zenbatekoaren %50 eta orubearen aberastasun balioaren erdia kontuan hartuko da. (2013, 2014 eta 2015 urteetarako zenbatekoen %25a soilik kontuan hartuko da)

Jabetza horizontala egonez gero, orubearen balioan duen zati proportzionala tituluan finkaturiko portzentajearen arabera zehaztuko da.

5.1.3. JABETZA ANITZEKO KONTRATUEN EDO ANTZEKOEN INDARREZ ESKURATUTAKO ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ESKUBIDEAK

Berekin ondasun higiezinaren titularitate partziala badakarte, 5.1. puntuko adierazpenei jarraiki baloratuko dira.

Berekin ez badakarte ondasun higiezinaren titularitate partzialik, egiaztagirien edo bestelako titulu ordezkagarrien eskurapen prezioaren (Bizkaian %50a dena; 2013, 2014 eta 2015 urteetarako %25ekoa) arabera baloratuko dira. Modu berean baloratuko dira erabilera turistikoko ondasun higiezinak txandaka aprobetxatzeko eskubideei eta zerga arauari buruzkoak, jasotako eskubideak, haien izaera edozein delarik ere.

*1985eko maiatzaren 9a baino lehenagoko kontratuen indarrez errentan emandako ondasun higiezinak. Sortutako errentaren %4 kapitalizatuz baloratuko dira, betiere horrela kalkulaturako balioa ondasun higiezinak baloratzeko erregelak aplikatuta ateratzen dena baino txikiagoa bada.

5.2. AKTIBO FINANTZARIOEN BALORAZIOA

Aberastasunaren eta Fortuna Handien Zerga kalkulatzeko orduan hainbat dira kontuan hartu beharreko aktibo finantzarioak. Lurralde Historiko eta indarrean dagoen araudiaren arabera balorazio irizpideak anitzak direnez, ondorengo lerroetan laburtuko dira guztiak, beraien arteko diferentziak azpimarratuz.

Gordailuei dagokienean lau Ogasunak bat datoz balorazio irizpidea ezartzeko orduan, guztiek abenduak 31ko edo azken hiruhilekoko balioa egokitzen jotzen dute.

Kapital propioak hirugarrenei laga izana adierazten duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatuak daudenak balio nominalean konputatzen dira lau lurralde historikoetan. Balore hauek merkatu antolatuetan negoziatuta ez daudenean edo aurreko multzoan sartzen ez direnean beraien negoziazio balioan edo azken lauhilekoko batz besteko balioan baloratuko dira.

Edozein motatako entitateen fondo propioetan parte hartzea adierazten duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatuak daudenen kasuan Gipuzkoako eta Nafarroako araudiak bat datoz azken lauhilekoko batz besteko negoziazio balioan konputatzerekin. Aldiz, Bizkaia eta Arabaren kasuan abenduan 31ko balioa hartuko da.

Edozein motatako entitateen fondoetan parte hartzea adierazten duten gainerako baloreak konputatzerako orduan, Gipuzkoan 2015ko abenduak 31n indarrean zegoen araudia, Bizkaikoa eta Arabakoa bat datoz, onartutako azken balantzeko balio teorikoan baloratuko behar direla. Gipuzkoan 2014 abenduak 31n indarrean zegoen araudiaren eta Nafarroako Foru Legearen arabera oster, azken balantzea egiaztatua izan bada eta auditoria txostena aldekoa, aurreko kasuetan bezala balio teorikoan konputatuko dira. Aldiz, azken balantzea auditatua izan ez bada edota txostena aldekoa izan ez bada, balio nominalaren, onartutako azken balantzeko balio teorikoaren edo itxitako azken hiru ekitaldi sozialetako mozkinen batez bestekoa %20an kapitalizatetik ateratzen den balioaren artean handiena dena hautatu beharko da.

Kooperatiben kapital sozialean bazkide edo elkartekideek dituzten partaidetzak derrigorrezko edo borondatezko ekarpenen zenbateko osoaren arabera baloratuko dira. Aipatu zenbateko osoa onartutako azken balantzetik aterako da, hala dagokionean itzuli gabeko galera sozialak kenduz.

Azkenik, Gipuzkoako arau foralek aurretiaz aipatu ez diren aktibo finantzariarik egote kasuan, hauek merkatuko balioan konputatuko direla aurreikusten da.

5.3. GAINONTZEKO ELEMENTUEN BALORAZIOA

Oinarri zergagarriaren barneratuak egon daitezken gainontzeko elementuak baloratzeko orduan lau lurralde historikoetako Ogasunak bat datozen arren, aurrekoekin egin den bezala, puntu bakoitzean azaltzen labor bat egingo da.

Bizitza aseguruak baloratzeko orduan abenduaren 31an duten erreskate balioa kontuan hartuko da eta aldi baterako edo biziarteko errentak aldiz abenduaren 31ko kapitalizazio balioan baloratuko dira.

Bitxiak, luxuzko larruak, ibilgailuak, urontziak eta aireontziak abenduak 31n duten merkatuko balioan konputatuko dira kasu guztietan.

Arte-gaien eta zaharinen kasuan ere abenduaren 31ko merkatu balioa hartuko da kontuan.

Eskubide errealen kasuan gozamina, eskubide errealak edo jabetza soila izatearen arabera balorazio irizpidea ezberdina izango da.

Administrazio emakidak Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergan ezarritakoaren arabera baloratuko dira.

Jabetza intelektual eta industrialetik eratorriko eskubideak baloratzeko eskurapen balioa hartuko da.

Kontratuzko aukeren kasuan ere Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan ezarritakoaren arabera baloratuko dira.

Eduki ekonomikoa duten gainerako ondasun eta eskubideak abenduaren 31n merkatuan duten balioan konputatuko dira.

Azkenik, zorrak abenduaren 31n duten balio nominalean baloratuko dira.

6. OINARRI LIKIDAGARRIA

Obligazio pertsonalaren kasuan, oinarri likidagarria izango da oinarri zergagarria salbuetsitako minimoaren kontzeptuan 700.000€ko murrizpen bat egitearen emaitza.

Obligazio errealaren kasuan, aldiz, oinarri likidagarria oinarri zergagarriarekin bat etorriko da.

6.1. MINIMO SALBUETSIA

Salbuetsitako minimoa, zergapetzetik libre geratzen den zenbatekoa da oinarritzko helburutzat zergaren progresibitatea handitzea duena.

Aurreko puntuan aipatu bezala, minimo salbuetsi hau aplikatzearen ondorioz biztanleriaren gehiengoak ez du zerga hau ordaintzen.

Lurralde historiko guztien araudietan salbuetsitako minimoaren kontzeptua jasotzen den arren, zenbateko hau ez da berdina guztietan. Hori dela eta ondorengo lerroetan lurralde bakoitzeko araudiko salbuetsitako minimoa aztertuko dugu:

- Gipuzkoa

Gipuzkoako kasuan, bai indarrean dagoen araudia baita 2014ko abenduaren 31an indarrean zegoenaren arabera ere, salbuetsitako minimoaren zenbatekoa berbera da.

Obligazio pertsonalaren kasuan, oinarri likidagarria, oinarri zergagarriari minimo salbuetsiaren kontzeptuan egindako murriztapen bat egitearen emaitza izango da, hau da, 700.000€-ko murriztapena egitearen ondorio. Beste modu batera azalduz, 700.000€-tik aberastasuna duten pertsonak ez dute zerga honen kontzeptuan ezer ordaindu beharrik izango.

Horrez gain, kontuan izan beharko da ohiko etxebizitzagatik 300.000€ arteko salbuespenak daudela eta ondorioz kasu askotan 1.000.0000€-ren azpitiko aberastasuna dutenek ere (700.000€ salbuetsitako minimoa eta 300.000€ ohiko etxebizitzagatik salbuespena) ez dute zerga hau ordainduko.

Gainera kontuan hartu behar da, irabazpidezko erregimena duten senar-emazteen (edo egitatezko bikoteak) kasuan aipaturiko milioi hori zergadun bakoitzeko izango dela. Beraz, 2.000.000€-tik beherako aberastasun komuna duten bikote askok ez dute zerga honengatik ordaindu beharrik izango.

Obligazio errealaren kasuan aldiz, oinarri likidagarria oinarri zergagarriarekin bat etorriko da. Horrez gain, zergadunak frogatu egin beharko du bere aberastasun osoa salbuetsitako minimoa baino gutxiagokoa dela eta ez dela zerga-paradisua bateko egoiliar edo ez izanik ere, herrialde horrek Espainiarekin informazio fiskal trukerako akordioa duela, minimo salbuetsi hau aplikatu ahal izateko.

Betebehar errealagatik zergapekoak ez diskriminatzeko, AFHZ-ren kuota likidoa bere aberastasun mundialari legokion AFHZ-ren kuota likidoa baino handiagoa ezin daitekeela izan arautzen da.

- Bizkaia

Gipuzkoan ez bezala, Bizkaia, oinarri likidagarrian 800.000€-tan murriztuko da salbuetsitako minimoaren kontzeptuan. Ez da zehaztapenik egingo zergapekoak aitorpena betebehar pertsonal edo errealarengatik egiten duelako.

- Araba

Araban ere, Bizkaian bezala, salbuetsitako zenbatekoa 800.000€-koa da eta ez diskriminaziorik egiten betebehar pertsonal zein errealaren arabera zerga ordaintzen duten zergapekoen artean.

- Nafarroa

Nafarroako Foru Legearen arabera salbuetsitako minimoa 800.000€koa da, Araba eta Bizkaiko kasuan bezala.

Taula 11: Salbuetsitako minimoen zenbatekoa araudika. Iturria: Lantze propioa

MINIMO SALBUETSIA				
GIPUZKOA (AFHZ 2014- 12-31 indarrean	GIPUZKOA (AFHZ 2015- 12-31 indarrean)	BIZKAIA	ARABA	NAFARROA
700.000 €	700.000 €	800.000 €	800.000 €	800.000

7. KUOTA OSOA

Kuota osoa, oinarri likidagarriari karga tasak aplikatuz lortzen da.

Minimo salbuetsiaren kasuan bezala, lau lurraldeetako Ogasunen kalkulurako erabili beharreko tarifak ez dira berdinak, horregatik ondorengo puntutan banaka azalduak izango dira:

7.1. LURRALDE HISTORIKOETAKO OGASUNETAKO TARIFAK

- Gipuzkoa (AFHZ 2014-12-31 indarrean)

Tabla 12: Gipuzkoan 2014ko abenduaren 31n indarrean zegoen AFHZren tarifa. Iturria: "10/2012 Foru Araua, abenduaren 18koa, Aberastasuna eta Fortuna Handien gaineko Zerga"-18.orria.

GIPUZKOAKO TARIFA (2014-12-31)			
Oinarri likidagarria (€)	Kuota osoa (€)	Gainontzeko oinarri likidagarria (€)	Tasa (%)
0	0	500.000	0,25
500.000	1.250	1.000.000	0,50
1.500.000	6.250	1.500.000	0,75
3.000.000	17.500	Hortik gora	1,00

Tarifa hau lau tartek osatzen dute. Tipo minimoa %0,25ekoa da eta maximoa aldiz %1koa. Jarraian aztertuko ditugun gainontzeko araudietako

(Gipuzkoa 2015 izan ezik) tarifekin alderatuz, minimoa handiena da eta tipo maximoa aldiz aplikatzen den txikiena. 3.000.000€tik gorako oinarri zergagarria pilatzen duten guztiek %1eko tipo maximoa aplikatuko dute.

- Gipuzkoa (AFHZ 2015-12-31 indarrean)

Taula 13: Gipuzkoan 2015eko abenduaren 31n indarrean zegoen AFHZren tarifa. Iturria: "6/2015 Foru Araua, abenduaren 23koa, Aberastasuna eta Fortuna Handien gaineko Zerga moldatzen duena"- 7.orra.

GIPUZKOAKO TARIFA (2015-12-31)			
Oinarri likidagarria (€)	Kuota osoa (€)	Gainontzeko oinarri likidagarria (€)	Tasa (%)
0	0	500.000	0,25
500.000	1.250	1.000.000	0,60
1.500.000	7.250	1.600.000	1,00
3.100.000	23.250	3.200.000	1,30
6.300.000	64.850	Hortik gora	1,50

2015ean Gipuzkoako araudia moldatzean beste aldaketa batzuen artean tarifa aldatu zen. Tipo minimoa eta honi dagokion oinarri zergagarria berdin mantendu zen arren, gainontzeko tarte guztiei dagokien tipo igo zen eta azken tarte bat gehitu: %1,5eko tipoa 6.300.000€tik gorako oinarri zergagarrientzat.

- Bizkaia

Taula 14: Bizkaiko ondarearen gaineko zergaren tarifa. Iturria: "2/2013 Foru Araua, otsailaren 27koa, Ondarearen gaineko Zergari buruzkoa"-14.orra.

BIZKAIKO TARIFA			
Oinarri likidagarria (€)	Kuota osoa (€)	Gainontzeko oinarri likidagarria (€)	Tasa (%)
0	0	800.000	0,20
800.000	1.600	800.000	0,60
1.600.000	6.400	1.600.000	1
3.200.000	22.400	3.200.000	1,50
6.400.000	70.400	6.400.000	1,75

12.800.000	182.400	Hortik gora	2
------------	---------	-------------	---

Bizkaiko tarifaren kasuan tarte gehiago barneratzen dira, sei zehazki. Tipo minimoa txikiagoa den arren maximoa %2rarte luzatzen da, 12.800.000€tik gorako oinarrientzat.

- Araba

Taula 15: Arabako ondarearen gaineko zergaren tarifa. Iturria: "9/2013 Foru Araua, martxoaren 11koa, Ondarearen gaineko Zerga"-14.orria.

ARABAKO TARIFA			
Oinarri likidagarria (€)	Kuota osoa (€)	Gainontzeko oinarri likidagarria (€)	Tasa (%)
0	0	200.000	0,20
200.000	400	200.000	0,30
400.000	1.000	400.000	0,50
800.000	3.000	800.000	0,90
1.600.000	10.200	1.600.000	1,30
3.200.000	31.000	3.200.000	1,70
6.400.000	85.400	6.400.000	2,10
12.800.000	219.800	Hortik gora	2,50

Arabako tarifa da, Nafarroakoarekin batera tarte gehien barneratu dituen, zortzi hain zuzen ere. Tipo minimoa Bizkaikoaren bera den arren, tipo hau oinarri zergagarri txikiagoentzat aplikatzen da, fortuna txikien jabeen kalterako. Tipo maximoa, nahiko altua da %2,5ekoa.

- Nafarroa

Taula 16: Nafarroakoa ondarearen gaineko zerga tarifa. Iturria: "12/1992 Foru Legea, azaroaren 19koa, Ondarearen gaineko Zerga"-12.orria.

NAFARROAKO TARIFA			
Oinarri likidagarria (€)	Kuota osoa (€)	Gainontzeko oinarri likidagarria (€)	Tasa (%)
0	0	155.511,88	0,16


155.511,88	248,82	155.511,88	0,24
311.023,76	622,04	311.023,76	0,40
622.047,53	1.866,13	622.047,53	0,72
1.244.095,06	6.344,87	1.244.095,06	1,04
2.488.190,11	19.283,46	2.488.190,11	1,36
4.976.380,22	53.122,84	4.976.380,22	1,68
9.952.760,45	136.726,02	Hortik gora	2,00

Oraintsu esan bezala tarifa hau zortzi tartez osatua dago. Kasu honetan tipo minimoa %0,16koa da eta maximoa aldiz %2koa.

7.2. TARIFEN ARTEKO ALDERAKETA.

Tarifen arteko diferentziak azaltzeko asmotan, ondorengo grafikoa argigarri egingo zaigu, bertan aztertutako izan diren lurralde historikoetako tarifen oinarri zergagarriak eta bakoitzari dagokion tipoak adierazten baitira.

Grafikoa 2: Aztertutako Lurralde Historikoetako tarifen alderaketa grafikoa. Iturria: Lantze propioa.



Aztertutako tarifei arreta jarriz gero, ikusi daiteke, Bizkaia eta Arabako arauak tarte berak dituztela, nahiz eta lehenengoak 800.000 eurotik berako oinarrientzat bi tipo gehiago dituen.

Gipuzkoari dagokionean, bi araudiak berezi behar dira. 2014ko abenduan indarrean zegoenari dagokionez, honek lau tarteko tarifa dauka, zeina %0,25ean agertzen den eta tipo altuena %1ekoa den, 3.000.000 eurotik gorako aberastasuna pilatzen dutenentzat. Ikusi daitekeenez, gainontzeko lurraldeekin alderatuta erlatiboki tipo baxuagoak direla bistan da. Gipuzkoako arauak jasotako 2015eko aldaketaren ondorioz, tarifak ere berritasunak izan zituen, horietako bat hauek igotzea zen, nahiz eta oraindik ere gainontzeko lurralde historikoetako tarifak baino baxuagoak izaten jarraitzen duten.

Ikusi daitekeenez, oinarri txikiagoetatik hasten dira zergapetzen Gipuzkoan indarrean egon diren tarifak, eta ondorioz aberastasun edota fortuna "txikienak" zergapetze handiagoa izango dute beste lurraldeetan baino, eta aldiz, "handienak" zergapetze leunago bat.

Baina lehenago esan den bezala, tarifa zergaren testuinguru osoa kontuan izanik interpretatu behar da, izan ere, askotan tarifa izan arren zerga baten ezaugarri adierazgarrietakoa edota begietara gehien deitzen duena, ez litzateke zuzena hau, modu aislatu batean interpretatzea. Izan ere, ez da inondik ere egiazkoa aberastasun eta fortuna handiek gutxiago ordaintzen dutenik Gipuzkoan.

Gipuzkoako legegileak nahiago izan du, tarifa igo beharrean oinarri zergagarrian ezartzea aldaketak, hau handiagoa eta zabalagoa izateko, eta ahalik balio errealetik gertuago egon dadin, eta horren aurrean tarifa txikiago bat ezarri, progresibotasuna eta berdintasuna bilatzeko.

8. KUOTA LIKIDOA

Kuota osoari dagozkion kenkarien eta hobarien zenbatekoak murriztuz lortzen da, baina inolaz ere horren emaitza ezingo da negatiboa izan.

Obligazio errealarengatik ateratzen den kuota likidua ezingo da inoiz, bere aberastasun osoari dagokionez, obligazio pertsonalagatik ordainduko lukeen kuota likidua baino handiagoa izan.

8.1. ATZERIAN ORDAINDUTAKO ZERGEN KENKARIAK

Zerga ordaintzeko obligazio pertsonalaren kasuan eta nazioarteko itun edo hitzarmenetan xedatutakoa eragotzi gabe, zerga honen kuota osoari, atzerrian dauden ondasun eta eskubideak direla eta ondoren aipatutako kopuruetatik zenbatekorik txikiena kenduko da.

- AFHZ-ren antzeko izaera edo berdina duen beste zerga batengatik atzerrian ordaindutako zenbatekoa, baldin eta karga horrek zerga honetan barneratutako ondasun eta eskubide guztiei eragiten badie.
- Atzerrian zergapetutako oinarri likidagarriaren zatiari AFHZ-ren batz besteko karga tasa aplikatzearen ondorioz ateratzen den emaitza.

8.2. HOBARIA JARDUERA EKONOMIKOEI ELEMENTUAK ATXIKITZEAGATIK ETA ENTITATE JAKIN BATZUETAN AKZIOAK ETA PARTAIDETZAK EDUKITZEAGATIK

Jarduera ekonomikoak burutzen dituzten zergadunentzat edota akzio eta partizipazio jakin batzuk dituztenentzat AFHZren kalkulua egiteko unean ezinbesteko garrantzia du hobariak. Hobari hau garrantzitsua izateaz gain, puntu edo gai honetan ematen da alderaketak egiten ari garen araudien arteko ezberdintasun esanguratsuenetako bat da.

Lanari izenburua ematen dion eta aztergai nagusi dugun 2014ko abenduaren 31ko Gipuzkoako Foru Arauak zergaren kalkulua burutzeko, aipatutako jarduera ekonomiko eta akzio eta partizipazioentzat hobaria aurreikusten du. Gainontzeko lau araudiek ordea (Gipuzkoan 2015ekoa barne, hori baita aldaketa nabarmenetako bat) salbuespenaren aldeko apustua egiten dute.

Lehenik eta behin, jarduera ekonomikoak eta akzio eta partizipazioak izateagatik aplikagarri den hobaria eta salbuespena aplikagarria izateko bete beharreko baldintzak zein diren aztertuko dira. Baldintza hauek berdinak dira bi kasuetan . Ondoren, hobaria eta salbuespena nola aplikatzen diren aztertuko da, ikuspegi praktikoago batetik eta aplikazio honetan sortzen diren desberdintasunak aztertu. Izan ere, hobaria zein salbuespena aplikatzeko baldintzak berdinak izan arren kalkulurako unean egin beharreko zuzenketak ezberdinak dira, esaterako, eta zerbait aurreratzegatik, higiezinei dagokienez, araudi bakoitzak bere zuzenketak ezartzen ditu.

Hobari hauek esan bezala jarduera ekonomikoei atxikitako elementuengatik eta entitate jakin batzuetan akzioak eta partaidetzak edukitzeagatik ematen dira. Bi kasuetan foru arauak kuota osoan ondasun eta zerbitzu horiei dagokien zatiari %75-eko hobaria aplikatzea aurreikusten du arauan bertan azaltzen diren baldintzak betetze kasuan.

8.2.1. JARDUERA EKONOMIKOEI ELEMENTUAK ATXIKITZEAGATIKO HOBARIA

Hobaria izango dute beren jarduera ekonomikoari lotutako pertsona fisikoen ondasun eta eskubideek betiere jarduera hori zergadunak ohikotasunez, pertsonalki eta zuzenean egiten badu eta errenta iturri nagusia bada. Ondasun eta eskubide horietan, bi ezkontide edo izatezko bikoteko bi kideen titulartasunean daudenak batuko dira, hau da, bi alderdienak multzoratuko dira.

Jarduera hau zergadunaren errenta iturri nagusizat hartuko da, aipaturiko jardueratik lortzen diren irabaziek gutxienez PFEZ-ko oinarri likidagarriaren %50 osatzen dutenean. Portzentaia honen kalkulurako ez dira kontuan hartuko ondorengo puntuak aipatuko diren entitateetan egiten diren zuzendaritza funtzioengatik jasotzen diren ordainsariak ezta entitate horietan parte hartzeagatik ematen diren bestelako ordainsariak ere. Zergadunak jarduera bat baino gehiago burutzen duenean, portzentaia lortzen duen edo ez jakiteko aurrera eramaten dituen jarduera guztiak eta hobariak hartuko dira kontuan. Hobaria jarduerari atxikita dauden ondasun eta eskubideei aplikatu ahal izango zaie. Hala ere azpimarratu beharrekoa da baldintza honek baduela malgutasun puntu bat edo berezitasun batzuk.

Elementu bat jarduerari atxikia egoteko ez dela beharrezko jarduera horren kontabilitatean erregistratua egotea. Horrez gain, atxikipen hau ez da elementuaren titulartasunari lotua egongo, ez du zertan behintzat. Jarduera ekonomikoa aurrera eramaten den higiezinak atxikiak egongo dira, baita pertsonal edo langileen zerbitzu ematera zuzenduta dauden ondasunak ere eta noski, irabaziaz lortzeko beharrezkoak diren beste edozein elementu ere bai. Azkenik, aipagarria da, ondasun eta elementuak ez direla zertan erabat atxikiak egon jarduerari, hau da, atxikipena partziala izan daitekeela.

8.2.2. ENTITATE JAKIN BATZUETAN AKZIOAK ETA PARTAIDETZAK EDUKITZEGATIK HOBARIA

Hobaria izango dute merkatu antolatuetan kotizatutako zein kotizatu gabeko entitateetako akzio eta partaidetzen gaineko jabetza osoa, jabetza soilak edo biziarteko usufuktu eskubideak, baldin eta ondorengo baldintzak betetzen badituzte:

- a) Entitatearen jarduera nagusia ondasun higigarri edo higiezin baten kudeaketa ez izatea, berdin diolarik entitateak sozietate izaera duen edo ez. Jarduera nagusia oraintsu aipatua dela ulertuko da baldin eta ekitaldi sozialaren lehenengo 90 egun baino gehiagotan bere aktiboaren erdia baino gehiago baloreez osatuta badago edota aktiboaren erdia baino gehiago jarduera ekonomikoari lotuta ez badago.

Bai aktiboaren balioa eta bai jarduera ekonomikoei atxikita ez dauden ondare elementuen balioa kontabilitateak ondorioztatzen direnak izango dira, baldin eta kontabilitateak sozietatearen egiazko ondare egoera zehazki islatzen badu. Jarduerari lotu gabeko baloreez edo ondare elementuez osatutako aktiboaren zatia kalkulatzeko:

1.- Ez dira konputatuko balore hauek:

- Legezko eta erregelamenduzko eginbeharrak betetzeko edukitzen direnak.*
- Jarduera ekonomikoak egitearen ondorioz ezarritako kontratu harremanetatik sortutako kreditu eskubideak barnean dituztenak.*

- Balore sozietateek beren xedea den jardueran aritzearen ondorioz

dauzkatena.

- Gutxienez boto eskubideen 100eko 5 eman eta parte-hartzea zuzentzeko eta

kudeatzeko helburuaz edukitzen direnak, baldin eta, ondorio horietarako,

baliabide material eta pertsonalen antolamendu egokia badago eta partaidetutako entitatea letra honetan sartuta ez badago.

2.- Ez dira konputatuko ez balore gisa eta ez jarduera ekonomikoari atxiki gabeko

elementu gisa eskuratze prezioa entitateak lortutako mozkin banatu gabeen

zenbatekoa baino handiagoa ez dutenak, baldin eta mozkin horiek jarduera

ekonomikoak egitetik eratorriak badira, urtean bertan nahiz aurreko 10 azken

urteetan lortutako mozkinen zenbatekoaren mugapean.

Ondorio horietarako,

jarduera ekonomikoetatik etorritako mozkinekin parekatzen dira aurreko

paragrafoaren azken puntuan azaltzen diren balioetatik etorritako dibidenduak,

baldin eta partaidetutako entitateak lortutako diru sarrerak, gutxienez

100eko 90ean, jarduera ekonomikoak egitetik badatoz.

Entitateak beste entitate batzuetan ere parte hartzen duenean, ulertuko da ez

duela ondare higigarri bat kudeatzen, baldin eta, entitate horietan zuzenean boto

eskubideen 100eko 5 gutxienez edukita, haien partaidetzak zuzendu eta kudeatzen baditu baliabide pertsonal eta materialak antolatuz; horretarako beharrezkoa izango da, dena den, entitate partaidetuen jarduera nagusia ondare higigarri edo higiezin baten kudeaketa ez izatea edo, bestela, entitate horietan a) letra honetan jasotako zirkunstantzietako bat gertatzea.

- b) Zergadunak banaka konputatzen duenean, kapitalean duen partaidetza gutxienez %5ekoa izatea edo %20koa familiako talde (ezkontidearekin batera, izatezko bikotearekin, aurreko zein ondorengo ahaideekin edo bigarren mailako zeharkako ahaideekin, jatorria odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotea edo adopzioa izanik) gisa konputatzen duenean.
- c) Zergadunak entitatean zuzendaritza lanak egitea eta horren truke jasotzen duen ordainsaria bere jarduera ekonomikoen eta lan pertsonalaren truke lortzen duen etekin guztien %50 baino handiagoa izatea. Aurreko puntuan aipatu bezala kapitalean duen %20ko partaidetza lortzeko familiako talde gisa lortu badu, gutxienez taldeko kideren batek zuzendaritza funtzioak eta horiengatik ordainsaria lortzearen baldintza bete beharko du. Taldeko famili kideakoren batek bi baldintza hauek betetzen baditu, gainontzeko guztiek ere hobaria aplikatzeko eskubidea izango dute.

Puntu honetan zehar aztertua izan dena kontuan izanik, analizatutako lau lurralde historikoetako araudiek enpresa jarduerak eta beraietan partaidetza

izatea saritzen dute. Sari horrek badu bere izate arrazoia, nahiz eta argi dagoen batzuk zein besteak titularrarentzat aberastasun handiago bat suposatze duela, kasu honetan, legegileak babestu egin behar direla ulertzen du. Izan ere, gizartean funtzio oso garrantzitsuak betetzen dituzte, esaterako, enplegua sortzearena.

Beraz, bi faktore jarri behar ditu legegileak balantzan, alde batetik aberastasuna zergapetzea eta bestetik enpresa sare indartsu bat izatea enplegua eta aurrerapen ekonomikoa bultzatzeko. Azken hau, jarduera ekonomikoei aplikagarria zaien hobariaren bitartez edo azken hauek salbuetsita utziz lortzen da. Funtsean bien helburua berdina den arren, helburu horretara iristeko bi bide ezberdin erabiltzen ditu administrazioak: Hobaria ematea eta salbuetsiak uztea.

Honen harira, bi neurriek funtsean helburu bera izanik, hauen mantentzearekiko zein ezabaketaren aldeko hainbat jarrera sortzen dituzte.

Batetik badira salbuetsita egotearen aldeko jarrera dutenak, zeintzuk jarduera ekonomikoari loturiko ondasunengatik edo partizipazioengatik AFHZ kontzeptuan ordaintzea zigortzailatzat hartzen duten. Honen bidez zergadunak jarduera ekonomikoa aurrera eramateko pizgarria jasotzen duela ulertzen da eta ondorioz aberastasun zein gizarte ekarpen gehiago egingo dituela argudiatzen dute. Gainera, elementu hauek salbuetsiak egoteari uzten badiote zergadun horiek ziurragoak diren baina era berean aberastasunik sortzen ez duten elementuetan inbertituko dutela baieztatzen dute, edota okerrago dena, fiskalki tratamendu edo abantaila hobeak eskaintzen dituzten lurraldeetara mugituko direla.

Bestetik, aurkako jarrera defendatzen dutenik ere badira. Hauek ondasun eta partaidetzen titular izateak ahalmen ekonomiko handiagoa izatea suposatzen duela baieztatzen dute hauek, nahiz eta ondasun hauek jarduera ekonomiko bati atxikiak egon. Edozein modutan, aberastasun handiago bat dutela argudiatzen dute eta horrexegatik zergapetuak izan behar direla, modu

horretan zergaren progresibotasuna lortu eta aberastasunaren banaketa justuago bat lortzeko. Hala ere, gizartean funtzio garrantzitsu bat betetzen dutela ulertzen dute eta horrexegatik hobaria aplikatzeko eskubidea izan beharko luketela.

Azkenik, eta honekin sortuko litzateke neurri hauekiko hirugarren jarrera, ondasun eta partaidetza hauek erabat zergapetuak izan beharko liriatekeela defendatzen dutenak ere badaude, inolako hobaririk aplikatzeko eskubide gabe.

8.2.3. ADIBIDE TEORIKOA

Jarraian, jarduera ekonomikoak aurrera eramateagatiko edo hauetan partaidetza izateagatiko hobariaren funtzionamendua ulertzeko, bi adibide praktikoko planteatuko dira.

Araudien arteko konparaketa bideragarri izateko eta araudi bakoitzeko tarifa ezberdinek emaitzetan eragin ez dezan, kalkulu guztietarako Gipuzkoan 2014ko abenduaren 31n indarrean zegoen araudian barneratzen den tarifa aplikatuko da, baita araudi horretako gutxieneko salbuetsia ere. Modu horretan, emaitzetan emango diren diferentziak hobariak jasotzeak edo salbuetsiak egoteak sor dezaketenak dira. Hau da, kasu guztiei tarifa eta gutxieneko salbuetsi berdina aplikatzen diegunean kuota likidoan zenbateko ezberdinak lortzearen arrazoi bakarra saritzeko aplikatu den mekanismoaren arabera da.

Adibidea 1. Zergadun batek 2.000.000 euroko ondarea du eta horietatik 1.000.000 sozietate batean dituen partizipazioei dagokie, sozietatearen partizipazioen %100ren jabe delarik. Partizipazio hauek erabat (%100) atxikiak daude jarduera ekonomikora.

1.1. Jarduera ekonomikoari aplikagarria zaien HOBARIA (Gipuzkoan 2014ko abenduaren 31n indarrean)

Oinarri zergagarria: 2.000.000€

Oinarri likidagarria: 2.000.000 – 700.000 (gutxieneko salbuetsia)=
1.300.000€

Azken oinarri honi dagokion tarifa aplikatuko zaio kuota osoaren zenbatekoa kalkulatzeko:

Kuota osoa: 5.250€

Jarraian, kuota likidoaren zenbatekoa kalkulatzeko, kuota osoari araudiak aurreikusten duen hobaria aplikatuko zaio, kontuan izanik zergadun honek hobaria aplikatu ahal izateko baldintza guztiak betetzen dituela.

Hobaria: %75 x (1.000.000/2.000.000) x 5.250= 1.968,75€

Kuota likidoa: Kuota osoa – Hobariak= 5.250 - 1.968,75= 3.281,25€

1.2. Jarduera ekonomikoak SALBUETSIAK (Gipuzkoan 2015eko abenduaren 31n indarrean, Bizkaia, Araba eta Nafarroa)

Kasu honetan, zuzenean oinarri zergagarria kalkulatzeko orduan ez dira 1.000.000€tan baloratutako partizipazioak barneratuko, salbuetsiak baitaude.

Oinarri zergagarria: 2.000.000 – 1.000.000 – 700.000(gutxieneko salbuetsia)= 300.000€

Jarraian, aurreko kasuan bezala, oinarri likidagarriari Gipuzkoan 2014ko abenduaren 31n indarrean zegoen araudiko tarifa aplikatuko zaio:

Kuota osoa: 750€

Zergadunari aplikatutako lehenengo kasuan entitate jakin horretako partaidetzak kuotaren zenbatekoaren kalkuluan barneratzen dira eta gero eskatutako baldintzak betetzen direnez, hobariaren bidez %75a saritzen da,

ordaintzeko zenbatekoa murriztuz. Kuotaren kalkulurako partaidetzaren zenbatekoak kontuan hartzen direnez, lehenengo kasuan “errazagoa” da tarifaren tartean gora egitea eta ondorioz tipo altuagoak aplikatzea. Bigarrenean aldiz, partaidetza ez da kuotaren kalkulurako erabiltzen, hasieratik kanpo uzten baita sari gisa. Hori dela eta baldintza berdinetan oinarri zergagarri txikiago erabiltzen du kuotaren kalkulurako, beraz, tipo txikiagoa aplikatuko zaio.

Adibidea 2. Bigarren zergadun honek ere 2.000.000 euroko ondarea du eta horietatik 1.000.000 sozietate batean dituen partizipazioei dagokie, sozietatearen partizipazioen %100ren jabe delarik. Partizipazio hauek ordea erdi atxikiak daude jarduera ekonomikora, hau da, %50 soilik daude atxikiak.

2.2. Jarduera ekonomikoei aplikagarria zaien HOBARIA (Gipuzkoan 2014ko abenduaren 31n indarrean)

Oinarri zergagarria: 2.000.000€

Oinarri zergagarriaren kalkulurako ez da kontuan izango zenbateraino atxikiak dauden elementu horiek, beraz, zenbateko osoa barneratuko da.

Oinarri likidagarria: 2.000.000 – 700.000 (gutxieneko salbuetsia)= 1.300.000€

Azken oinarri honi dagokion tarifa aplikatuko zaio kuota osoaren zenbatekoa kalkulatzeko:

Kuota osoa: 5.250€

Jarraian, kuota likidoaren zenbatekoa kalkulatzeko, kuota osoari araudiak aurreikusten duen hobaria aplikatuko zaio, kontuan izanik zergadun honek hobaria aplikatu ahal izateko baldintza guztiak betetzen dituela. Aurreko kasuan ez bezala, ondasunak %50ean atxikiak daudenez, zergadunak dituen partizipazioen zenbatekoaren %50 erabiliko da hobariaren kalkulurako, hau da, 500.000€.

Hobaria: $\%75 \times (500.000/2.000.000) \times 5.250 = 984,38\text{€}$

Kuota likidoa: Kuota osoa – Hobariak = $5.250 - 984,38 = 4.265,63\text{€}$

2.2. Jarduera ekonomikoak SALBUETSIAK (Gipuzkoan 2015eko abenduaren 31n indarrean, Bizkaia, Araba eta Nafarroa)

Kasu honetan, oinarri zergagarria kalkulatzeko orduan kontuan izan beharko da jarduerari atxikiak dauden elementuak ez direla barneratu. Hori horrela, partizipazioen %50 egongo da salbuetsia eta gainontzeko %50a oinarri zergagarrian barneratu beharko da.

$1.000.000 \times 50\% = 500.000\text{€}$ salbuetsiak

Oinarri zergagarria: $2.000.000 - 500.000 - 700.000$ (gutxieneko salbuetsia) = 800.000€

Jarraian, aurreko kasuan bezala, oinarri likidagarriari Gipuzkoan 2014ko abenduaren 31n indarrean zegoen araudiko tarifa aplikatuko zaio:

Kuota osoa: 2.750€

Adibide honetatik ere aurretik atera ditugun ondorio berberak atera daitezke. Hala ere, kasu honetan atxikipena partziala izanik salbuetsita geratzen denaren kasuan ere partaidetzei dagokien zati bat oinarrian barneratzen da, honen zenbatekoa handituz eta ondorioz kuotaren zenbatekoa igoz. Hori dela eta bi kasuen (hobaria eta salbuetsia) emaitzen arteko diferentzia ez da lehenengo adibidean bezain nabarmena.

8.2.4. ADIBIDE PRAKTIKOAK: HOBARIA EDO SALBUETSIA?

Aurreko bi puntuetan azaldu diren ezaugarri eta desberdintasun guztiak argiago uzteko, jarraian adibide praktiko batzuk planteatzen dira.

Oraintsu aipatu den arren ondasunen atxikipena partziala izan daitekeela, ondorengo bi kasu praktikoetan muturreko bi egoera planteatu dira, erabat atxikiak eta atxiki gabeak izatea alegia. Egoera hauek planteatu dira, alde batetik muturreko egoeretan diferentziak nabarmenagoak direlako eta bestetik partzialtasunak nolabaiteko nahaspila sor dezakeelako ariketan.

KASU PRAKTIKOA 1.

Nerea Urteaga Lizardi ARGI, E.M.S. sozietateko kapitalaren %60ren jabe eta 2.000.000€tako ondarea du, aipatu berri ditugun partizipazioak kontuan izan gabe. Nereak sozietate honetan zuzendaritza lanak egiten ditu berriaz eta honen truke jasotzen dituen ordainsariak dira bere errentako sarrera nagusiak (sarreraren %50 baino handiagoa). Sozietateko elementu guztiak bere aktibitateara atxikiak daude eta ez du merkatu antolatuetan kotizatzen.

Jarraian ageri den balantzea ARGI, E.M.S. sozietateren azken ekitaldiari dagokiona da, onartua izan dena, auditatua eta aldeko iritzia jaso ostean. (Kontuan izango dugu adibidea aurrera eramateko balantzea berdina izango litzatekeela aztertuko ditugun araudi eta denbora tartetako).

Taula 17: Adibide praktikoak: ARGI, E.M.S. ren egoera balantzea. Lantze propioa (asmatu-rikoko balantzea)

ARGI, E.M.S.			
EGOERA BALANTZEA (XXXX-12-31)			
AKTIBOA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
AKTIBO EZ KORRONTEA	311.000	ONDARE GARBIA	300.000
Ibilgetu Materiala		Fondo Propioak	
Higiezinak	230.000	Kapital Soziala	300.000

Makineria	81.000		
AKTIBO KORRONTEA	44.000	PASIBO KORRONTEA	55.000
Bezeroak	42.000	Hartzekodunak	11.000
Kutxa	2.000	Hornitzaileak	40.000
		Gizarte Segurantzza hartzekodun	4.000
AKTIBOA GUZTIRA	355.000	OG + PASIBOA GUZTIRA	355.000

Balantzean, aktibo ez korrontean ageri den higiezinaren balorazio irizpide ezberdinekin lortzen diren zenbatekoak ondorengoak dira:

- Balio katastrala: 300.000€
- Kontabilitate balioa: 230.000€
- Erosketa balioa: 550.000€
- VMA: 600.000€ (%25a 150.000€)

Jarraian, adibide honen helburua lortzeko planteatu diren datu hauek oinarritzat hartu, lanean azertu diren araudiekin zergadun honek lortuko lituzkeen emaitzak aterako dira.

- Gipuzkoa (2014 abenduaren 31n indarrean zegoen araudia):

Araudi honen arabera, partizipazioak onartua izan den azken balantzeko balio teorikoaren arabera baloratuko dira, beti ere eta adibidearen hasieran aipatu den bezala, balantzea auditatua eta iritzia aldekoa izan bada. Zergadunari dagokionean, partizipazio hauekiko %75eko hobaria aplikatzea posible izango litzakete, arauan ezartzen diren baldintzak bete ezker. Hobaria aplikagarria izango zaien partizipazioei ez zaie inolako zuzenketarik egin beharko (ajusteak egin beharko zaie hobaria aplikatu ezin zaien partizipazioei). Higiezinak kontabilitate balioan baloratuko dira.

Hasieran aipatu den ondareari sozietatean duen partaidetzari dagokion balioa erantsiko zaio, hau da, kapitalaren %60

Kapitalean partaidetza: $300.000 \times 0,6 = 180.000\text{€}$

Ondare garbia (partizipazioak barne): $2.000.000 + 180.000 = 2.180.000\text{€}$

Oinarri zergagarria: $2.180.000\text{€}$

Oinarri likidagarria: $2.180.000 - 700.000 = 1.480.000\text{€}$

Kuota osoa: 6.150€

Ondoren hobaria kalkulatu da eta honekin kuota likidoa lortu da.

$180.000 / 2.180.000 = 0,083$

Hobaria: $6.150 \times 0,083 \times 0,75 = 382,83\text{€}$

Kuota likidoa: $6.150 - 382,83 = 5.767,16\text{€}$

- Gipuzkoa (2015eko abenduaren 31n indarrean zegoen araudia):

Araudi honen arabera, kontabilitate balioari zuzenketa batzuk egin beharko zaizkio, salbuetsita geratuko ez direnak, zenbait ondasunen balorazioko arau bereziak kontuan izanik. Aipaturiko ondasunak ondorengoak dira: Higiezinak, ibilgailuak, itsasontziak eta hegazkinak. Gure kasuari dagokionean, higiezinaren balorazioa zuzendu beharko da. Kontabilitate eratorritako balioa, balio katastralarekin ordeztu beharko da, azken hau handiagoa bada. Gure kasuan hala izanik, 70.000€ ko zuzenketa positiboa egin beharko zaio. Ondorioz, sozietateko partizipazioen balioa 370.000€ izatera igaroko litzateke.

Partaidetza (salbuetsia): $300.000 \times 0,6 = 180.000\text{€}$

Zenbateko hau salbuetsita egongo den bitartean, berari dagokion zuzenketa (70.000€) zergadunaren ondarean barneratuko da, azken hau handituz.

Partaidetzaren zuzenketa (salbuetsi gabea): $70.000 \times 0,6 = 42.000\text{€}$

Horrez gain, nahiz eta gure adibide praktikoan ondasun motak hauek ez dauden, araudi honek balantzean egon litezkeen zenbait ondasun konkretu inoiz ezin izango direla salbuetsiak egon dio. Aipaturiko ondasunak ondorengoak dira: Alokatura dauden higiezinak (baldin eta alokairu horri loturik lanaldi osoan bost langile ez badaude), Inbertsio Kolektiboetako Institutioetan partizipazioak eta hirugarren (taldekoak ez diren) enpresetan inbertsioak, hau da, enpresak bere balantzean izan ditzakeen akzio eta partizipazio oro, baldin eta salbuetsiak izateko baldintzak betetzen ez badituzte.

- Bizkaia

Bizkaian indarrean dagoen araudiari so, ondasun higiezinak baloratzeko EGBren %25a hartuko da. Kasu honetan higiezinaren kontabilitate balioa baino txikiagoa denez, ez da zuzenketarik egingo.

Partaidetza: $300.000 \times 0,6 = 180.000\text{€}$

Kalkulatu berri den zenbateko hau erabat salbuetsita geratuko da eta ondorioz ez da Nerearen ondarean barneratuko. Sozietateko elementuak aktibitateari erabat atxikiak daudenez, salbuespena %100koa da.

- Araba

Arabako araudiaren arabera aldiz, balio katastrala hartuko da balorazio irizpide gisa. Gipuzkoako 2014ko araudian gertatzen den bezala beraz, balio katastrala kontabilitate balioa baino handiagoa denez, 70.000€ zuzenketa positiboa egingo da.

Partaidetza (zuzenketaren ostean): $370.000 \times 0,6 = 222.000\text{€}$

Zenbateko hau erabat salbuetsia egongo da, sozietateko elementuak aktibitateari erabat atxikiak daudelako eta ondorioz ez dira ondarearen gaineko zergaren kalkuluko oinarrian barneratuko.

- Nafarroa (2015eko abenduaren 31n indarrean zegoen araudia)

Araudi honen arabera, enpresa edo jarduera ekonomikoei atxikitako ondasun eta eskubideak kontabilitate balioaren arabera konputatuko dira. Beraz Gipuzkoako 2014ko abenduaren 31ko araudiaren kasuan bezala, ez da zuzenketarik egin beharko.

Partaidetza: $300.000 \times 0,6 = 180.000\text{€}$

Kopuru hau salbuetsita geratzen da, hau da, ez dira Nerearen ondarean barneratuko.

Tabla 18: Kasu praktikoa 1: ARG I.E.M.S.ren enpresa edo jarduera ekonomikoei atxikitako ondasun eta eskubideen balorazioa. Iturria: Lantze propioa.

ENPRESA ETA LANBIDE JARDUEREN BALORAZIOA					
	GIPUZKOA (2014-12-31 indarrean)	GIPUZKOA (2015-12-31 indarrean)	BIZKAIA	ARABA	NAFARROA
Partaidetza (%100)	300.000	300.000	300.000	300.000	300.000
Ondare Garbia (partaidetza %60)	180.000	180.000	180.000	180.000	180.000
Zuzenketak	-	70.000	-	70.000	-
Zuzenketak (partaidetza %60)	-	42.000	-	42.000	-
Zerga oinarria (salbuetsi gabea)	180.000	42.000	-	42.000	

Gipuzkoa (2015eko abenduaren 31n indarrean zegoena) eta Araban zergadunak duen ondareari, zuzenketaren ondorioz salbuetsita geratu ez den zenbatekoa gehitu beharko zaio. Bizkaia eta Nafarroan zuzenketarik egon ez denez, partaidetzaren %100 salbuetsita geratuko da, beraz, zergaren

oinarriaren kalkuluan ez dira kontuan izango. Gipuzkoan, 2014ko abenduaren 31an indarrean zegoen araudiaren kasuan, partaidetza guztia oinarri zergagarrian barneratuko da eta kuota osoa kalkulatu ostean, dagokion hobaria aplikatuko zaio.

KASU PRAKTIKOA 2.

Kasu honetan aurrekoaren egoera bera ematen da, bai Nerearen baita sozietatearen datuak ere berberak dira. Hori dela eta, araudiak aztertzeko aurreko kasuko datuak erabiliko dira.

Hala ere bigarren egoera honetan, aurrekoan ez bezala, sozietateko elementuak ez daude bere aktibitatera atxikiak.

- Gipuzkoa (2014 abenduaren 31n indarrean zegoen araudia):

Araudi honen arabera, partizipazioak onartua izan den azken balantzeko balio teorikoaren arabera baloratuko dira, baina araudiko 14.5 artikuluko a) atalean arautzen denaren arabera, hobaririk ez duten partizipazioen kasuan balio teorikoa behin kontabilitate balio netoan zerga honetan ezartzen diren zuzenketak eginda hartuko da. Hau da, higiezinak hiru balio hauetatik handienean konputatuko dira: balio katastrala, administrazio publikoak onartutako balioa edo erosketa balioa.

Hiru balioetatik handiena erosketa balioa izanik, higiezinak 550.000€tan baloratuko da, beraz, 320.000€ko zuzenketa positiboa egingo da.

Partizipazio hauek hobaririk ez dutenez, zuzenketa osteko zenbatekoa erabiliz, Nerearen ondarea handituko da.

- Gipuzkoa (2015eko abenduaren 31n indarrean zegoen araudia):

Araudi honetako 14.5 artikuluko a) atalean higiezinaren balorazioa balio katastralean egingo dela ezartzen da. Beraz, 70.000€ko zuzenketa positiboa egingo da.

- Bizkaia

Bizkaian indarrean dagoen araudiak dioenaren arabera, ondasun higiezinak baloratzeko EGBren %25a hartuko da. Kasu honetan higiezinaren balio kontableari 80.000€ murrizketa egin beharko zaio zuzenketa egiteko.

- Araba

Arabako araudiaren arabera aldiz, balio katastrala hartuko da balorazio irizpide gisa. Gipuzkoako 2014ko araudian gertatzen den bezala beraz, balio katastrala kontabilitate balioa baino handiagoa denez, 70.000€ zuzenketa positiboa egingo da.

- Nafarroa (2015eko abenduaren 31n indarrean zegoen araudia)

Araudi honen arabera, enpresa edo jarduera ekonomikoei atxikitako ondasun eta eskubideak kontabilitate balioaren arabera konputatuko dira. Beraz Gipuzkoako 2014ko abenduaren 31ko araudiaren kasuan bezala, ez da zuzenketa egin beharko.

Taula 19: Kasu praktikoa 2: ARG I.E.M.S. ren enpresa edo jarduera ekonomikoei atxikitako ondasun eta eskubideen balorazioa. Iturria: Lantze propioa

ENPRESA ETA LANBIDE JARDUEREN BALORAZIOA					
	GIPUZKOA (2014-12-31 indarrean)	GIPUZKOA (2015-12-31 indarrean)	BIZKAIA	ARABA	NAFARROA
Ondare Garbia (partizipazioak)	300.000	300.000	300.000	300.000	300.000

Zuzenketak	320.000	70.000	-	70.000	320.000
Balorazio berria	620.000	370.000	300.000	370.000	620.000
Atxikipena	%0	%0	%0	%0	%0
Partaidetza %60 (€)	372.000	222.000	180.000	222.000	372.000

Taula 20: Kasu praktikoa 2: ARGI E.M.S.ren zerga likidazioa. Iturria: Lantze propioa

ZERGA LIKIDAZIOA					
	GIPUZKOA (2014-12-31 indarrean)	GIPUZKOA (2015-12-31 indarrean)	BIZKAIA	ARABA	NAFARROA
Ondare Garbia (partizipaziorik gabe)	2.000.000	2.000.000	2.000.000	2.000.000	2.000.000
Ondare Garbia (partizipazioak barne)	2.372.000	2.222.000	2.180.000	2.222.000	2.372.000
Oinarri zergagarria	2.372.000	2.222.000	2.180.000	2.222.000	2.372.000
Salbuetsitako minimoa	700.000	700.000	800.000	800.000	800.000
Oinarri likidagarria	1.672.000	1.522.000	1.380.000	1.422.000	1.572.000
Kuota osoa	8.970	7.470	5.080	8.598	9.755,08
Hobaria %75 (€)	-	-	-	-	-
Kuota likidoa	8.970	7.470	5.080	8.598	9.755,08

KASU PRAKTIKOA 3: ZUZENKETEN ARAZOA

Nora Andonegi Alkorta ILUN, E.M.S. sozietateko kapitalaren %60ren jabe eta 2.000.000€tako ondarea du, aipatu berri ditugun partizipazioak kontuan izan gabe. Norak sozietate honetan zuzendaritza lanak egiten ditu berriaz eta honen truke jasotzen dituen ordainsariak dira bere errentako sarrera nagusiak (sarreraren %50 baino handiagoa). Sozietateko elementu guztiak bere aktibitateara atxikiak daude eta ez du merkatu antolatuetan kotizatzen.

Jarraian ageri den balantzea ILUN, E.M.S. sozietateren azken ekitaldiari dagokiona da, onartua izan dena, auditatua eta aldeko iritzia jaso ostean. (Kontuan izango dugu adibidea aurrera eramateko balantzea berdina izango litzatekeela aztertuko ditugun araudi eta denbora tartetako).

Taula 21: Kasu praktikoa 3: ILUN, E.M.S. ren egoera balantzea. Lantze propioa (asmatu-rikoko balantzea)

ILUN, E.M.S.			
EGOERA BALANTZEA (XXXX-12-31)			
AKTIBOA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
AKTIBO EZ KORRONTEA	1.050.000	ONDARE GARBIA	550.000
Ibilgetu Materiala		Fondo Propioak	
Higiezinak	100.000	Kapital Soziala	550.000
Alokatutako Higiezina	150.000		
Inbertsio Kolektiboetako			
Instituzioetan partizipazioak	800.000		
AKTIBO KORRONTEA	105.000	PASIBO KORRONTEA	605.000
Bezeroak	100.000	Hartzekodunak	105.000
Kutxa	5.000	Hornitzaileak	200.000
		E/lab mailegua	300.000
AKTIBOA GUZTIRA	1.155.000	OG + PASIBOA GUZTIRA	1.155.000

- Gipuzkoa (2014 abenduaren 31n indarrean zegoen araudia):

Hasieran aipatu den ondareari sozietatean duen partaidetzari dagokion balioa erantsiko zaio, hau da, kapitalaren %60a.

Kapitalean partaidetza: $550.000 \times 0,6 = 330.000\text{€}$

Ondare garbia (partizipazioak barne): $2.000.000 + 330.000 = 2.330.000\text{€}$

Oinarri zergagarria: $2.330.000\text{€}$

Oinarri likidagarria: $2.330.000 - 700.000 = 1.630.000\text{€}$

Kuota osoa: 7.225€

Ondoren hobaria kalkulatu da eta honekin kuota likidoa lortu da.

$330.000/2.330.000 = 0,142$

Hobaria: $7.225 \times 0,142 \times 0,75 = 769,46\text{€}$

Kuota likidoa: $7.225 - 769,46 = 6.455,54\text{€}$

- Gipuzkoa (2015eko abenduaren 31n indarrean zegoen araudia):

Kasu honetan, lehen begirada batean, badirudi sozietatearen ondarean (550.000€) Norak duen partaidetzaren proportzioa erabat salbuetsia geratuko litzatekeela eta beraz aberastasunaren gaineko zergaren kalkulua ateratzeko orduan partaidetza zergapetzetik at geratuko litzatekeela. Hori horrela den arren, aurreko kasu praktikoan araudi honi dagokion atalean esan bezala ondasun jakin batzuk salbuetsiak izatetik kanpo geratzen dira, hau da, oinarri zergagarrian barneratu eta zergapetuak izango dira. Sozietate honen kasuan zergapetuak izango diren ondasunak alokatutako higiezinak eta Inbertsio Kolektiboetako Institutuzioetan partizipazioak dira. Ondorioz, salbuetsi gabeko bi aktibo hauen zenbatekoen batura ez da zergapetzetik aske geratuko eta zergadunaren oinarri zergagarria handituko dute.

Salbuetsi gabeko ondasunak: $150.000 + 800.000 = 950.000\text{€}$

Partaidetza (salbuetsi gabea): $950.000 \times 0,6 = 570.000\text{€}$

Oinarri zergagarria: $2.000.000 + 570.000 = 2.570.000\text{€}$

Oinarri likidagarria: $2.570.000 - 700.000 = 1.870.000\text{€}$

Kuota osoa: 10.950€

8.2.5. ONDORIOAK: AURKA JARRITAKO BI POSTURA

Hasteko aipatu beharra dago, lanean zehar etengabe aztertu eta alderatuak izan diren lau araudietan jarduera ekonomikoren baten partaidetza izatea saritua dagoela. Batean, AFHZ Gipuzkoan arautzen duen 2014ko abenduaren 31n indarrean zegoen araudian, hobariaren bitartez egiten da eta gainontzeko lauretan aldiz, partaidetza hori salbuetsia utziz.

Gipuzkoan, lehenengoz indarrean jarri zen AFHZn aipaturiko elementuak oinarri zergagarrian barneratzen dira, nahiz eta gero %75 hobaria aplikatu, zergadunak hauei esker ahalmen ekonomiko handiagoa duela argudiatzen baita.

Aurkako kasuan, jarduera ekonomikoei atxikita ez dauden elementu eta partaidetzek ez dute hobaririk izango ezta salbuetsiak ere geratuko, eta ondorioz zerga zama handituko dute. Elementu hauen kasuan ez zaie tratamendu ezberdina emango enpresako balantzean barneratuak dauden edo zuzenean zergadunarekin lotuak dauden arabera, ondorioz ez du zentzurik erabilera edo jabetza pribatuko elementuak sozietatearen ondarean barneratzeak. Hala ere, mota honetako praktikek ez dute zigorrik suposatzen eta horregatik hainbat zergadunek jokaera hauek burutzen dituzte, nolabaiteko zerga elusio intentzioarekin.

Jarduera ekonomiko bati atxikiak dauden partizipazioak baloratzeko orduan kontuan izan behar da ez direla zuzenketarik egiten, ez hobarien ezta salbuetsiak geratzearen kasuan ere. Hala ere, azpimarratu beharrekoa da Lurralde Historiko bakoitzeko Ogasunek erabiltzen duten balorazio irizpideen arteko diferentziak direla medio, enpresaren balorazioan diferentziak esanguratsuak sortzen direla. Ondorioz, Ogasun bakoitzeko zerga zorra ez da berdina izango eta honek eragina du bereziki elementu guztiak atxikiak ez daudenean edota hobaria edo salbuespena aplikagarria ez den kasuetan.

Esan bezala balorazio irizpideen arteko bateraezintasun honek diferentziak esanguratsuak sortzen ditu enpresen balorazioan eta ondorioz

zergadun bakoitzaren zerga zorrean. Egoera honek ez du inondik inora ere zerga ekitatea lortzen laguntzen.

Orokortasun batean aztertuz, bai hobari eta baita salbuetsita uztearekin ere enpresa sareak babestu eta sustatu nahi dira. Lan ondasunak (ondasun profesionalak) eta enpresetan partizipazioak zergadunarentzat aberastasun dira, baina salbuetsiak egote kasuan eta jarduera ekonomikoei lotuak egonik, ez dira zergapetuak izango.

Helena Franco Ibarzabalek “Aportación desde la práctica al debate sobre la tributación de la riqueza: El Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas de Gipuzkoa (2013-2014)” artikuluan adierazi zuen bezala Inditex, El Corte Ingles eta L’Oréal taldea bezalako enpresak familiarrak izan arren ez dira inolaz ere enpresa txikiak (*H.Franco, 2015*). Neurri baten edo bestearen aplikazio erabaki politikoaren ondorio den arren, nire iritziz, salbuetsita uztearen neurria jarduera ekonomikoak bultzatzeko helburuarekin ezartzen bada, familiarrak izan arren izugarritzko fakturazioa duten enpresa hauen kasuan ez da justua. Izan ere, zerga zama txikiagoa jasateko intentzioarekin fortuna handien jabeek nahikoa dute enpresa familiarrak sortzea beraien ondasunak erabat salbuetsiak geratzeko. Neurri hau barneratzen duten araudiak jarraituz hori egitea guztiz legezkoa den arren, ikuspegi etikotik zer eztabaidatua baduela deritzot nik.

Aurreneko bi kasu praktikoak batik bat hobarien eta salbuetsia geratzearen arteko diferentzia azaltzeko erabili dira. Azken kasua, hirugarrena, ordea Gipuzkoako azken bi araudiak aztertzeko erabili da, egun indarrean dagoenak (2015ko abenduaren 31n indarrean zegoena) barneratzen duen moldaketa garrantzitsuenetako baten zentratuz: Jarduera ekonomikoei elementuak atxikitzeagatik eta entitate jakin batzuetan akzioak eta partaidetzak edukitzeagatik salbuespena izatea hain zuzen ere, berauei egin behar zaizkien zuzenketak kontuan izanik. Eta hara non hasiera baten 2015ean indarrean zegoen araudiak partaidetza salbuetsia uztea arautzen duenez kontzeptu honi zegokionean ezer ez zuela ordaindu beharko ematen bazuen ere, kalkuluak

atera ostean agerian geratu da partaidetzagatik ordaintzeaz gain 2014an indarrean zegoen araudian baino zenbateko handiagoa izatera iristen da.

Egoera hori guztiz paradoxikoa izateaz gain, AFHZren moldaketa honek (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2015) badakartza bere gain arazo gehiago ere:

Zergadun bat ondarearen gaineko zerga kalkulatzeko akzio/partizipazioen edo jarduera ekonomikoan balorazioa egin behar badu, enpresan horren higiezinaren partiden informazio zehatza lortu beharko du hala badagokio zuzenketak egiteko: zenbatekoa den kontabilitate balioa eta katastrala. Alde batetik, zergadunari dagokionean zergaren kalkulurako ohikoak direnak baino kalkulu gehiago atera beharko ditu oraintsu aipatu ditugun zuzenketak egiteko eta bestetik, gestio horretan informazioa lortu eta helarazteko obligazioa pasatzen dio sozietateari, azken hau subjektu pasibo bihurtuz. Izan ere, sozietateak zuzenean zerga hau ordaindu behar duen arren, zergadunari beharrezko zaioen informazioa errazteko obligazioa sortzen zaio.

Orain artekoa gutxi ez balitz, higiezinaren balorazioa egiterako orduan arazo tenporalak ere sor daitezke. Esaterako, zerga ekitaldia baino lehenagoko onartutako balantze bat izate kasuan eta zuzenketak egiteko hau araudiak dioen moduan zerga ekitaldiko balio katastralarekin ordeztu beharra gerta liteke. Kasu honetan, zerga likidazioa egiteko argibideak urriak izateaz gain kontabilitate aldetik akats handia den egoera sortuko litzateke, bi ekitaldi ezberdinetako informazioa nahastea hain zuzen ere. Horrez gain, baliteke azken balantze onartuan aktiboan zegoen higiezin bat jadanik zerga ekitaldian ez egotea eta honek nahasmena handiagotuko luke.

2015ean AFHZ moldatu zenean, honen defentsarako erabili zen argudio pisutsuenetako bat jarduera ekonomikoak salbuetsita uztearena izan zen, jarduera ekonomikoak zituzten ondareentzat hobekuntza izango zela argudiatuz, tratamendu hobea izateaz gain, beraientzat inguru tributario hobea sortuko zutela baieztatuz.

Titular handietan jarduera ekonomikoak salbuetsia uztea saldu zen bitartean, letra txikia salbuespenez beterik zegoen, oraintsu esan bezala salbuetsi gabeko ondasunak ere badirelako eta salbuetsiak egonik ere

zuzenketen ondorioz zenbateko guztiak ez direlako erabat zergapetzetik at geratzen. Gainera hainbeste zuzenketak zerga gestionatzeko zail bihurtzen du eta enpresa zeharkako zergadun izatea inplikatzeko du.

Euskal enpresan ezaugarriak aztertuko bagenu, orokorrean aurreztaile eta zuhurrak direla esango genuke eta beraz dibidenduak erabat banatu orde zarritan aktiboan (fondoan bidez) gordetzen dituztela, egoera okerragoei aurre egiteko. 2015eko abenduaren 31n AFHZri zegokionean indarrean zegoen araudia jardura ekonomikoa zergapetzetik libre utziz saritzea saldu bazuen ezaugarri honetako enpresek urteetan funtsak sortzen egindako ahaleginen ostean, ez dira AFHZren kalkulurako salbuetsiak geratzen. Beraz, ondoriozta dezakegu, araudi honek ahalegina saritzeaz urrun, zigortu egiten duela.

9. KUOTA OSOAREN MUGA

Kuota osoaren muga, Aberastasuna eta Fortuna Handien Gaineko Zergaren inguruko lan honen inguruko kokapen historikoan aipatu den bezala, zerga honen aurrekari izan zen Ondarearen Gaineko Zergan barneratua bazegoen ere, zergaren aldaketarekin ezabatu egin zen. Hala ere, 2015ean AFHZ berri zenean, kuota osoaren muga indarrean jarri ez arren hurrengo ekitaldian kuota osoaren muga hau barneratzeko asmo sendoak erakutsi dira.

Oraintsu esan bezala, Gipuzkoan aztertutako bi araudietan barneratzen ez den arren, gainontzeko hiru Lurralde Historikoetako araudietan limite honen aplikazioa ezarrita dagoenez, limite hau zer den nola funtzionatzen duen azalduko da ondorengo puntuetan.

9.1. AZALPENA ETA BILAKAERA HISTORIKOA

Ondarea eta errentaren gaineko baterako limitearen helburua norbanako batek ekitaldi baten zehar lortu duen errenta baino handiago den ondarearen gaineko zerga ez ordaintzea da. Kuota osoaren mugaren aplikazioa, honen

portzentaiak eta gainontzeko zehaztapenak aurrerago aztertu eta sakonduko ditugu. Dena den, kasu konkretutan eta zehaztapenetan sartu aurretik beharrezkoa deritzot kuota osoaren mugaren izate arrazoia zein den ulertzea; bere bilakaera historikoa aztertuz, muga honen inguruko aldeko eta aurkako posizionamenduak ulertuz eta bere ezinbestekotasuna zalantzan jarritz.

Izan ere, limite honen aldeko jarrera duten adituen ustetan, neurri hau hartuko ez balitz, ondarearen gaineko zergaren limite gabeko ordainketak norbanakoa bere ondarea besterentzera behartuko lukeela defendatzen dute.

- Kuota osoaren muga lehenengoz 5/1977ko Azaroaren 14ko Ondarearen Gaineko Ezohiko Zergak (*"5/1977 Legea, azaroaren 14koa, Medidas Urgentes de Reforma Fiscal"*) arautu zuen. Gipuzkoari dagokionez, 14/1991ko Abenduaruaren 27ko Arau Forala (Gipuzkoako *Foru Aldundia, 1991*) izan zen kuota osoaren muga arautzen lehena.

Mekanismo honek nahiz eta aldaketak jasan zituen 2012.urteraino mantendu zen. Jakina denez, urte honetan AFHZ onartu zen eta kuota osoaren gaineko muga ezabatzea izan zen berrikuntza esanguratsuenetako bat.

Jarraian, kuota osoaren muga defendatzeko arrazoiak hainbat izan daitezkeela ikusiko dugu. Defentsa honetarako erabilienak diren arrazoiak ondorengo biak dira: "Ez konfiskatorietate klausula" eta Eskudo fiskala. Baina bien atzean arrazoiketa berdina gordetzen da, kuota osoaren mugak babes funtzio bat betetzen du ogasunaren aurrean, honek gehiegizko zerga zama bat ezarri ez dezan zergadunen gain eta azken hauek zerga zama horri aurre egiteko beraien ondarea besterentzera behartuak izan ez daitezten. Izan ere, jakin badakigu gehiegizko zerga zama hori ezin dela iritsi konfiskatorioa izatera, hala den kasuan konstituzioaren aurkako egoera ematen baita. 1978ko Konstituzioak 31.artikulan Eskubide eta Askatasunei dagokien tituluan zehazki, jasotzen du aipatu berri dugun xedapena. *"Guztiek, bakoitzaren ahalmen ekonomikoaren arabera, herri-gastuaren euspenean lagunduko dute, berdintasun-eta gehikortasun-printzipioetan oinarrituriko zerga-egituraketa justu baten bitartez, eta horrek, inoiz ere, ez du konfiskatzeko aukerarik izango."*

(Espainiako Konstituzioa, 1978ko abenduaren 29an, Estatuko Boletín Ofizialeko 311.zenbakian argitaratua).

Artikulu honetan azaltzen denari jarraiki, zerga sistemak berdintasun eta progresibitate printzipiotan oinarritu behar du, norbanakoek gastu publikoa sostengatuz beraien ahal ekonomikoaren arabera, baina konfiskatorioa izatera iritsi gabe. Hala ere, zerga bat konfiskatorioa izatea kontzeptu aski abstraktua da eta kasu konkretuetan xedapen bat konfiskatorioa den edo ez jakitea da beharrezkoa. Beraz, kasu honetara aplikatuz, zehazki kuota osoaren muga konfiskatorioa den edo jakin behar dugu eta horretarako Auzitegi Konstituzionalak, Konstituzioaren interpretatzaile gisa, hainbat sententzia eman ditu gai honen inguruan. Honen bidez, kasu konkretuetatik abiatuz eta hauek ebazteko asmoz, konfiskatorioa zer den teorikoki definitzera iritsi da.

Kasu honetan 1990eko Urriaren 4ko sententziaren zati bat aztertuko da:

“... el examen de esta alegación viene, en efecto, condicionado por la interpretación que haya de darse al principio de no confiscación en material fiscal, cuestión que dista de hallarse doctrinalmente clarificado... De hecho, en material fiscal, la confiscación no supone la privación imperativa, al menos parcial, de propiedades, derechos patrimoniales o rentas sin compensación, ya que este tipo de privación o exacción es, en terminos generales de esencia al ejercicio de la potestad tributaria y al correlativo de ver de contribuir al sostenimiento de los gastos públicos.” (Auzitegi Konstituzionalaren 150/1990 sententzia, 1990eko urriaren 4koa; 9.oinarri juridikoa)

Sententziaren paragrafo honetan jasotzen denez, fiskalitate arloan, beti egongo da zergadunaren aldetik bere ondasunak Ogasunari emateko betebeharra, haien ordeztan, bueltan inongo kontra prestaziorik jaso gabe, hau delako hain zuzen ere, tributu ahalaren esentzia eta gastu publikoen sostengurako obligazioaren erreflexua.

“... Tiene declarado este Tribunal... Que la capacidad económica, a efectos de contribuir a los gastos públicos, significa tanto como la incorporación otra exigencia lógica que obliga a no agotar la riqueza imponible sustrato, base o

exigencia de toda la imposición el pretexto del deber de contribuir, de ahí que el límite máximo de la imposición venga cifrado constitucionalmente en la prohibición de su alcance confiscatorio.” (Auzitegi Konstituzionalaren 150/1990 sententzia, 1990eko urriaren 4koa; 9.oinarri juridikoa)

Baina zalantzarik gabe, betebehar horretan Administrazioak duen ahala norainokoa den azaldu egin behar da, hau da mugak jarri.

“ ... Y dado que lo que se prohíbe no es la confiscación, sino que justamente que la imposición sea tenga “alcance confiscatorio” es evidente que el sistema fiscal tendría dicho efecto si mediante la aplicación de las diversas figuras tributarias vigentes, se llegara a privar el sujeto pasivo de sus rentas y propiedades, con lo que además se estaría desconociendo, por la vía fiscal indirecta, la garantía prevista en el artículo 31.1. de las constitución... asumiendo la dificultad de situar con criterios técnicamente operativos la frontera en la que lo progresivo, o mejor, lo justo, degenera en confiscatorio, si resulta posible rechazar...” (Auzitegi Konstituzionalaren 150/1990 sententzia, 1990eko urriaren 4koa; 9.oinarri juridikoa)

Beraz Auzitegi Konstituzionalak esaten duenez ikusi egin beharko da, zergapetzea, geroz eta progresiboagoa den kasu horietan, hau konfiskatorioa bilakatzen den.

Aipatu berri den sententzia honek berak zerga konfiskatorioa ez izateko hainbat baldintza edo ezaugarri izatea ezartzen du:

- a) Konfiskatorio ez izateak beregain aberastasuna ez agortzearen obligazioa barneratzen du.
- b) Zerga sistema honek efektu hori izango lukeela aurreikusten da zerga neurri horien aplikazioak zergaduna bere errenta eta ondasunak besterentzera behartzen duenean.
- c) Zerga konfiskatorioa izango da zalantzarik gabe bere progresibitateak zergadunaren errentaren %100 zamatzen duenean.

Beraz, Auzitegi Konstituzionalak, konfiskatorietatearen muga AFHZ ordaintzeko zergadunak bere ondarea besterenganatu behar duen unean ezartzen da, hau da, zergadun horrek urte horretan lortu duen errenta nahikoa ez denean zerga ordaintzeko eta horretarako aurrez zituen ondasunak besterenganatu behar dituenean.

Orain artean konfiskatorietatearen kontzeptua zer den eta noiz ematen den aztertu da. Jarraian, kontzeptu hau kuota osoaren mugarekin erlazionatuko da eta aztertu muga honek zerga konfiskatorio bihurtu edo ez bihurtzean zein paper jokatzeko duen. Hau da, zein den kuota osoaren mugak zergaren konfiskatorietatean duen eragina. Zalantza honen inguruko hausnarketa egiteko, bi galdera hauei erantzun beharra da: Kuota osoaren mugak AFHZ ez konfiskatorioa izatea lortzen du? Eta, muga hau ez existitzeak konfiskatorio bihurtzen du?

Lehenengo galderari erantzunez, honen aplikazioaren aldekoek, baietz esaten dute. Are gehiago Bizkaia, Araba eta Nafarroako araudiek ez dute muga hau %100ean finkatzen, %65etik gorakoa ere konfiskatoriotzat hartzen dute, errentaren gainean gehiegizko zergapetze bezala ulertuz. Araudi hauen arabera, errenta baten gaineko %65 baino handiagoko zergapetze bat gehiegizkotzat hartzen dute, nahiz eta zergapetzea ez izan errenta bezain bestekoa. Ondorioz, legegile hauen iritziz, babesgabeko zergapekoa administrazioaren aurrean nolabait babestua geratzen da, baita bere ondarea ere.

Bigarren galderari erantzuna emanez, mugaren ezabatzeak zerga konfiskatorio bihurtuko ez lukeela defendatzen dutenek, zerga bere osotasunean aztertu behar dela diote, zerga-sistema oso baten barnean egonik, eta hau bere osotasunean kontuan hartuta, zaila da defendatzea, honelako mekanismo baten faltak, konfiskatorietatea suposa dezakeenik. Izan ere, ordezkotza neurriak egon daitezke, Gipuzkoako 2014ko Foru Arauan esaterako, ikusi dugun bezala, zergaren gehiengo tipoa %1era jaitzi zen, arrazoi honengatik hain zuzen ere. Muga honen ezabatzearekin Gipuzkoako Ogasunak lortu nahi izan zuen helburuetako bat, garrantzitsuena agian, zerga

mekanismo honen bidez aberastasun handien jabeek zerga ordainketa ekiditea izan zen.

Dena den, kuota osoaren mugaren aldekoen, zein kontrakoen iritziak hobeto ulertzen dira, adibide praktiko batzuekin, hor ikusten baita, zein eragin izan dezakeen mugak, ordaindu beharreko kuotaren kalkuluan.

Hori dela eta, jarraian, bere aplikazioa nola egiten den azalduko dut, eta ondoren adibide praktiko batzuen bitartez kasu desberdinak ikusi eta landu.

9.2. KUOTA OSOAREN MUGAREN APLIKAZIOA

Kuota osoaren muga, betebeharraren pertsonalaren zioz zergapekoak diren norbanakoen kasuan soilik izango da aplikagarria eta bai limite maximoak baita minimoak ere berdinak dira aztertu ditugun “Ondarearen Gaineko Zerga” guztien kasuan, hau da, Bizkaia, Araba eta Nafarroako araudien kasuan.

- Limite maximoa

Limite maximo honen bidez gehiegizko zergapetzeak ekidin nahi dira. Zerga honetako kuota osoaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako kuota osoaren batura ezingo da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zerga-oinarri orokorraren eta aurrezpenaren zerga-oinarriaren %65 baino handiagoa izan. Hori dela eta, legegilearen iritziz ez da onartuko zergadun batek ekitaldian zehar lortu duen 100€ko 65€ baino gehiago zerga kontzeptuan ordaintzea.

- Gutxiengo limitea (minimoa)

Baina bi kuota horien baturak goian ezarri den muga gainditzen badu, murriztu egingo da harik eta ezarri den mugara jeitsi arte, baina murrizketa ezin da inola ere %75 baino handiagoa izan. Hau da, kuota berri hori ezingo da,

aurretiaz kalkulatu den “Ondarearen Gaineko Zerga”ren kuotaren %25 baino txikiagoa izan, beraz, gutxienez kalkulatu den kuotaren %25a ordaindu beharko du zergadunak. Neurri honekin gutxiengo limiteak bi helburu argi lortzen ditu, batetik, fortuna handien titularrak zerga honen kontzeptuan ordaindu gabe ez geratzea, eta bestetik, zerga sistemari nolabaiteko progresibotasun bat ematea.

9.3. ADIBIDE PRAKTIKOAK

Kasu praktikoak aurrea eramateko erabiliko diren norbanakoen perfilak, kasu gehienetan muturrera eramanak izan dira. Hau da, egoera ezberdinetan egon daitezken zergadunen arteko diferentziak atera eta ondorio garbiak ateratzeko kasuak eratzeko, errealitatetik urrundu daitezkeen perfilak sortu dira.

KASU PRAKTIKOA 1: JON LANDAZABAL AGIRRE

Jon, 21 urteko mutilak, makinen mantenuko modulua amaitu berri eta oraintsu bere lehen lana lortu du “ZZZ” enpresan. Bertan zortzi orduko errelebotan lan egiten eta momentuz beste langile baten laguntzaile gisa jarduten du, ofizioa ongi ikasi bitartean. Horrez gain, Jonek bizitza osoan pilatuz joan den aurrezki batzuk ditu eta guztiak kontu korrontean izan beharrean zati bat Kutxabankekoren errenta finkoko gordailu batean ditu. Gordailu horren truke jasotzen dituen interesek eta enpresatik jasotzen duen nominak osatzen dute bere errenta apala. Azkenik aipatzeko, bere titulartasunean dagoen ondarea herentzia batetik lortu du.

Taula 22: Kasu praktikoa 1: Kuotaren zenbatekoa lurralde historiko bakoitzeko. Iturria: Lantze propioa

	GIPUZKOA (2014/12/31 indarrean AFHZ)	GIPUZKOA (2015/12/31 indarrean AFHZ)	BIZKAIA	ARABA	NAFARROA (2014/12/31 indarrean OGZ)
ONDARE GARBIA	2.700.000	2.700.000	2.700.000	2.700.000	2.700.000
	27.000	27.000	27.000	27.000	27.000

PFEZ OINARRIA					
PFEZ KUOTA	5.962,50	5.962,50	5.962,50	5.962,50	5.962,50
AFHZ/OGZ OINARRIA	2.000.000	2.000.000	1.900.000	1.900.000	1.900.000
AFHZ/OGZ KUOTA	10.000	12.250	9.400	14.100	13.166,28
KUOTEN BATURA	15.962,50	18.212,50	15.362,50	20.062,50	19.128,78
LIMITEA (PFEZ OINARRIAREN %65)	-	-	17.550	17.550	17.550
MINIMOA (KUOTAREN %25)	-	-	2.350	3.525	3.291,57
ORDAINDU BEHARREKOA	10.000	12.250	9.400	14.100	13.166,28
MURRIZTAPENA	-	-	0	0	0
GUZTIRA ORDAINDUTAKOA (PFEZ+AFHZ)	15.962,50	18.212,50	15.362,50	20.062,50	19.128,78

Zergadun honen ondarea ez da bereziki altua eta bere errenta ere apala da. Jonen eta antzeko ezaugarriak dituzten zergadunen inguruan, ondorengo ondoriozta dezakegu:

Kuotaren aldetik, Jonen kuotarik altuena ordaindu beharko luke Araban zergaduna izango balitz, bertakoa baita tarifarik progresiboena.

Baterako limitea barneratzen den araudietan (Bizkaia, Araba eta Nafarroa, kasu honetarako ez da aplikatzen, izan ere, "Ondarearen Gaineko Zerga"-ren kuota ez da limite maximoa gainditzeko bestekoa. Hori dela eta zergadunak ez luke murriztapenik lortuko.

KASU PRAKTIKOA 2: MARIA LUISA OIARBIDE MENDIZABAL

Maria Luisa 57 urteko emakume ezkongabea da. Ez du besteren konturako lanik egiten eta errentako diru sarrerak bere titulartasunean dituen etxebizitzak alokatuz lortzen ditu, baita entitate finantzarioetan dituen ondasunen mozkinetatik ere. Metatua duen ondarea betidanik izan du, hau da, familiarik datorkion ondarea da.

Taula 23: Kasu praktikoa 2: Kuotaren zenbatekoa lurralde historiko bakoitzeko. Iturria: Lantze propioa

	GIPUZKOA (2014/12/31 indarrean AFHZ)	GIPUZKOA (2015/12/31 indarrean AFHZ)	BIZKAIA	ARABA	NAFARROA (2014/12/31 indarrean OGZ)
ONDARE GARBIA	5.500.000	5.500.000	5.500.000	5.500.000	5.500.000
PFEZ OINARRIA	55.000	55.000	55.000	55.000	55.000
PFEZ KUOTA	12.787,50	12.787,50	12.787,50	12.787,50	12.787,50
AFHZ/OGZ OINARRIA	4.800.000	4.800.000	4.700.000	4.700.000	4.700.000
AFHZ/OGZ KUOTA	35.500	45.350	44.900	56.500	49.364,07
KUOTEN BATURA	48.287,50	58.137,50	57.687,50	69.287,50	62.151,57
LIMITEA (PFEZ OINARRIAREN %65)	-	-	35.750	35.750	35.750
MINIMOA (KUOTAREN %25)	-	-	11.225	14.125	12.341,02

ORDAINDU BEHARREKOA	35.500	45.350	35.750	35.750	35.750
MURRIZTAPENA	-	-	9.150	20.750	13.614,07
GUZTIRA ORDAINDUTAKOA (PFEZ+AFHZ)	48.287,50	58.137,50	48.537,50	48.537,50	48.537,50

Aurreko kasuan baino ondare zein errenta altuagoa duten zergadunentzat ondorengoak ondoriozta genitzake:

Maria Luisak, Gipuzkoan 2015eko abenduaren 31an, zergadun izatean ordaindu beharko luke kuotarik altuena. Izan ere, ondarea handitzean honen gain aplikatzen den tarifa handitu egiten da eta horrez gain Gipuzkoako araudiak ez du baterako limitea barneratzen. Hori dela eta, ondarea handiagoa den kasuetan baterako limitea aurreikusten duten araudiek, murriztapena dela eta, kuota txikiagoak lortzen dituzte.

Bestalde, nahiz eta Bizkaia, Araba eta Nafarroako araudietan baterako limitea aplikatu, Gipuzkoan 2014ko abenduaren 31n indarrean zegoen araudiarekin lortzen den kuota da denetan txikiena. Izan ere, araudi honetako tarifa maximoa %1koa da, gainontzekoen aldean baxua.

KASU PRAKTIKOA 3: LEIRE ARANBERRIA IPARRAGIRRE

Leire, Imanol Etxeberria Astigarrarekin ezkondata dago eta bien arte 4.400.000€ inguruko ondarea pilatzen dute. Bikote honek banakako errenta aitortpena egiten du. Leirek dituen diru sarrera bakarrak herrian duen lokal baten alokairuari dagozkio. Ez da errenta minimora iristen eta ondorioz ez du aitortpena egin beharrik.

Taula 24: Kasu praktikoa 3: Kuotaren zenbatekoa lurralde historiko bakoitzeko. Iturria: Lantze propioa

	GIPUZKOA (2014/12/31 indarrean AFHZ)	GIPUZKOA (2015/12/31 indarrean AFHZ)	BIZKAIA	ARABA	NAFARROA (2014/12/31 indarrean OGZ)
ONDARE GARBIA	2.200.000	2.200.000	2.200.000	2.200.000	2.200.000
PFEZ OINARRIA	5.500	5.500	5.500	5.500	5.500
PFEZ KUOTA	0	0	0	0	0
AFHZ/OGZ OINARRIA	1.500.000	1.500.000	1.400.000	1.400.000	1.400.000
AFHZ/OGZ KUOTA	6.250	7.250	5.200	8.400	7.966,28
KUOTEN BATURA	6.250	7.250	5.200	8.400	7.966,28
LIMITEA (PFEZ OINARRIAREN %65)	-	-	3.575	3.575	3.575
MINIMOA (KUOTAREN %25)	-	-	1.300	2.100	1.991,57
ORDAINDU BEHARREKOA	6.250	7.250	3.575	3.575	3.575
MURRIZTAPENA	-	-	1.625	4.825	4.391,28
GUZTIRA ORDAINDUTAKOA (PFEZ+AFHZ)	6.250	7.250	3.575	3.575	3.575

Leireren gisako zergadunen kasuan, errenta oso txikia dutenak eta ondorioz errenta aitortpena egiteko obligaziorik ez dutenen kasuan, ondorengoa baieztatu dezakegu:

Zergadunak Gipuzkoakoak izateko kasuan kuotarik handienak ordaindu beharko lituzkete. Alde batetik, baterako limitea ez delako aplikagarria eta bestetik, ondare txikiaren kasuan tarifarik progresiboena Lurralde Historiko honetako araudiek dutelako.

Ondarea ez da bereziki handia eta ondorioz lortzen diren kuotak ere ez, baina hala ere errenta proportzioan askoz ere txikiagoa denez, gehienezko limitea aplikatuko da hau aplikagarria den araudi guztietan.

KASU PRAKTIKOA 4: JOSE JUARISTI SALABERRIA.

Jose 70 urteko gizona da. Bizi osoa aseguru etxe ezagun batentzat lan egiten igaro du eta urteetako lanari zein egindako inbertsioei esker hamasei milioitako ondarea metatu du. Bere ondarea bi multzo garrantzitsutan banatzen da: Higiezinak eta produktu finantzarioak. Ondarearen Gaineko Zerga edo baliokideak diren zergak ordaintzea ekiditeko, bere inbertsioak planifikatzen ditu, hauek errentagarritasunik eman ez dezaten ekitaldi barruan, beraien salmenta burutu arte. Modu horretan Josek errenta sarrerarik ez izatea lortzen du eta honengatiko zergarik ez ordaintzea. Ondorioz, ondarea zergapetzen duen zerga honetan gutxieneko minimoa soilik ordaintzea lortzen du (Gipuzkoan izan ezik, "trikimailu" honek ez baitu balio).

Taula 25: Kasu praktikoa 4: Kuotaren zenbatekoa lurralde historiko bakoitzeko. Iturria: Lantze propioa

	GIPUZKOA (2014/12/31 indarrean AFHZ)	GIPUZKOA (2015/12/31 indarrean AFHZ)	BIZKAIA	ARABA	NAFARROA (2014/12/31 indarrean OGZ)
ONDARE GARBIA	16.000.000	16.000.000	16.000.000	16.000.000	16.000.000
PFEZ OINARRIA	0	0	0	0	0
PFEZ KUOTA	0	0	0	0	0

AFHZ/OGZ OINARRIA	15.300.000	15.300.000	15.200.000	15.200.000	15.200.000
AFHZ/OGZ KUOTA	140.500	199.850	230.400	279.800	224.879,65
KUOTEN BATURA	140.500	199.850	230.400	279.800	224.879,65
LIMITEA (PFEZ OINARRIAREN %65)	-	-	0	0	0
MINIMOA (KUOTAREN %25)	-	-	57.600	69.950	56.219,91
ORDAINDU BEHARREKOA	140.500	199.850	57.600	69.950	56.219,91
MURRIZTAPENA	-	-	172.800	209.850	168.659,74
GUZTIRA ORDAINDUTAKOA (PFEZ+AFHZ)	140.500	199.850	57.600	69.950	56.219,91

Joseren egoeran dauden zergadunen kasuan, hau da, errentarik izan ez eta ondare izugarri handia pilatua dutenen kasuan, ondorengo baieztapenak egin ditzakegu:

Kuotarik altuenak, Bizkaiko eta Arabako araudiekin lortzen dira, bertan ondare handientzat tarifak altuenak baitira.

Hala ere, errentarik ez duenez ordaindu beharrekoa kalkulatzeko orduan limite maximoa 0 eurotako da eta ondorioz kuotaren %25 minimoa soilik ordaindu beharko dute, Bizkaia, Araba eta Nafarroako kasuan. Horrelako kasuetan lortzen den tarifa murrizketa oso handia da eta ondorioz, Gipuzkoako araudian baterako limiterik onartzen ez denez, kuotarik altuenak ordaindu beharko dira.

9.4. ONDORIOAK: KUOTA OSOAREN MUGA EZTABAIDA GAI

Aurretiaz, bai teorikoki baita adibide praktikoetan aztertu denean oinarrituz, hainbat ondorio mahairatu ditzaket.

Kuota osoaren mugaren aldeko jarrera dutenek sarri defendatu ohi dute zergadun baten AFHZ kontzeptuan ordaindu beharreko zenbatekoa PFEZren oinarri zergagarria baino handiagoa izatea suertatzen den kasuetan, zerga automatikoki konfiskatorioa izatera pasatzen dela. Zuzenean baieztapen hau onartu eta egiazat emateak hainbat arazo ekar ditzake:

Hasteko, aipaturiko baieztapena horrela balitz, kuota osoaren muga aplikatzen den kasuetan ere egoera hori eman liteke, izan ere, oinarri zergagarria edozein delarik ere muga honekin gutxienez ordaindu beharreko zenbatekoak existitzen dira, hau da, gutxieneko zergapetzea dago.

Horrez gain, kuota osoaren gaineko muga zerga ez konfiskatorioa izateko tresnatzat ezartzea erraza izango litzateke, AFHZ kontzeptuan PFEZren oinarri zergagarria baino gutxiago ordaintzea lortuz. Ikusi berri dugun kasu praktikoan (4.kasu praktikoa) helburu hau lortu daiteke plangintza fiskal egoki baten bidez, PFEZ errentarik sortzen ez duten produktuetan inbertituz hain zuzen ere.

Aipatu berri denari jarraiki, inbertsio fondoak erabiltzean, hauen birbaloratzea salmenta unean gauzatzen denez irabazian, AFHZren ordainketa atzeratzen da, diferentzia tenporala sortuz. Kasu hauetan zergadunak ez luke ez duenagatik ezta irabazi duenagatik ere ordainduko eta ondorioz kolokan jarriko lirateke Konstituzioko 31.artikuluari aipatzen diren printzipioak; ahalmen ekonomikoa, justizia, berdintasuna eta progresibotasunarenak hain zuzen ere.

Gainera, nire ikuspegitik zaila da aipatu berri dugun jarrera defendatzea. Kuota osoaren muga ezabatua izan zela “konpentsatzeko” AFHZren tipo

maximoak %1ean (AFHZ 2015eko abenduaren 31n indarrean zegoena, tipo maximoa %1,5) ezarri ziren eta honi aurka jarriz, merkatuko kapitalen batz besteko errentagarritasuna %4-%5 inguruan finkatua dagoela adierazten da hainbat ikerketa eta analisisiren arabera (*Franco, H. 2014*). Beraz, datu hauek oinarritzat hartuz, nire uste apalean ezin daiteke esan AFHZ konfiskatoria dela kuota osoaren muga barneratzen ez duelako. Izan ere, lortu daitekeen errentagarritasunarekin ez litzateke arazorik sortu behar obligazio fiskalei aurre egiteko, hau da, lortzen den errentagarritasuna nahiko da zerga ordainketei aurre egiteko.

Hori dela eta, nire ikuspuntutik, kuota osoaren mugak ondasunen alferrik (errentagarritasunik eta aberastasunik sortu gabe) egotea bultatzen du, hau da, era batean zergadunak bere ondasunak modu produktiboan ez erabiltzera bultatzen du. Modu horretan ondasunak ez du irabazirik sortuko eta ondorioz ez du irabazi hori errenta aitorpenean izango eta ondorioz AFHZn gutxiengo zenbatekoa besterik ez du ordainduko. Honexegatik beraz, ni iritziz, ez du zentzurik araudi berak jarduera ekonomikoagatik bonifikazio edo salbuespen bat barneratzea eta aldi berean kuota osoaren muga barneratzea, aurkako bi jarrera bultatzen baitituzte. Lehenengoekin jarduera ekonomikoa bultzatu eta sustatu nahi da eta bigarrenak aldiz aurkako jarrera bultatzen du edo horretarako bidea irekitzen du behinik behin.

Horrez gain, argi ikusten da kuota osoaren muga honek zergaren progresibotasuna mugatzen du, adibide praktikoetatik ondorioztatu den bezala. Mugapen hau ez da soilik ondare handien kasuan soilik gertatzen, izan ere, ondarea handia pilatzen ez den kasutan baina muga jokoan sartzen denetan ere, gauza bera gertatzen da, progresibotasuna apurtzen baita. Hala ere, egia da joera hau askoz ere argiagoa dela ondare handien kasuan. Gainera, kuota osoaren muga aplikatzeak zerga ekitatearen kontzeptua zalantzan jartzen du, izan ere, ondare berdina izanik, errenta ezberdina lortzen duten zergadunek kopuru desberdina ordaintzen dute zerga honen kontzeptuan.

10. ZERGA BILKETAREN INGURUKO ZENBAIT DATU

Gipuzkoan Aberastasuna eta Fortuna Handien gaineko zerga onartu zenean, hainbat kritika jaso zituen, horietako bat, zergadunen ihesa izan zen. Zerga berri honen aurkakoek, jarduera ekonomikoak burutzen zituzten zergadunentzat kaltegarria dela iritzita, hauek inguruko lurraldeetara ihes egingo zutela iragarri zuten, haietan zerga trataera hobea izango zutela argudiatuta.

AFHZren lehen ekitaldia pasa ostean, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Martin Garitano buru zutela, ekitaldi horretako emaitzak argitaratu zituzten.

Datu hauen arabera, Zerga honek gipuzkoarren %1ri eragiten ziola adierazi zuten. Guztira, 7.833 aitorten aurkeztu ziren 2013an, aurreko urtean, 2012an, baino 1.230 gehiago. Aitorten guzti horietatik 7.718ren emaitza ordaintzekoa izan zen eta ordaindu beharrezko €batz besteko zenbatekoa 7.284 eurokoa izan zen, 2012an 5.855ekoa izan zen bitartean (*Franco, H. 2014*).

Gipuzkoako diru poltsako sarrera hauek %47,6ko hazkuntza erakusten dute 2012ko kanpainarekin alderatuz. Datu bikainak izateaz gain tokiko enpresak lekualdatu ez direla islatzen dute foru arduradunen esanetan. (*“Expansión”, 2014*)

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza sailak emandako datuak oinarritzat hartuz, zergadunen ordainketen inguruan ondorengo baieztapenak egin daitezke: zergadunen %37,9ak Ondarearen gaineko Zerga indarrean egongo balitz ordainduko lukeena baino gutxiago ordaintzen du; %1,5ak kopuru berdina ordainduko luke bi kasuetan eta %26,2ak aldiz gehiago

ordaintzen du kasu honetan, beraien aberastasuna tarifaren lehen tartean kokatua baitago, zeintzuk tipo altuagoa duten (*Franco, H. 2014*).

Datu hauek kontuan izanik eta lanean zehar aztertutako puntu guztiak oinarritzat hartuz, irakurle bakoitzak bere ondorioak atera eta iritzi propioa defendatu dezakeen arren, datu errealak lagungarri izaten dira errealitatea ulertzeko.

11. ONDORIOAK

Lanean zehar teorikoki zein praktikan jorratutako puntu bakoitzean zehazki landutako hainbat ondorio barneratu dira.

Hala ere, gaiaren ikuspegi orokorrago bat lortu eta lanari amaiera emateko helburuz, beharrezkotzat jo dut aurretiaz aipaturiko ondorio zehatzen laburpen bat egin eta ideia orokor batzuk aipatzea.

Horrez gain, AFHZren inguruan egin dudak lanketa erabat pertsonala izanik ondorio orokorrez gain zergaren aplikazio ezberdinen eta araudien gaineko iritzia ere eman nahi nuke.

Hasteko, eta ideia hau argi azpimarratu nahi du, puntu bakoitzeko ondorioetan araudi bat edo bestearen aldeko postura azaltzen dudak arren, hau da, hobetzat eman dudak arren, aukeraketa hori soilik landu berria izan den puntuari dagokionean egina izan dela. Izan ere, ezin da inolaz esan araudi bat beste bat baino hobea denik zergaren alor edo irizpide soil bat oinarritzat hartuz.

Hori horrela, jarraian puntu bakoitzean atera diren ondorioak laburtu eta batera aurkeztuko ditut:

Lanaren hasierara itzuliz, araudi bakoitzak ondasun higiezinak baloratzeko erabiltzen dituen irizpideei dagokionean, hainbat dira atera diren ondorioak. Alde batetik, Gipuzkoan 2014 abenduaren 31n indarrean zegoen

araudia azterbidetzat hartuz, balorazio anitzak (hiru irizpide) arazoak sortzen ditu, zeinetan ezaugarri berdineko higiezin kasuan zergapetze desberdin esanguratsuak eman daitezkeen. Bestalde, arazo honen konponbide izan litekeen balio katastralak ere baditu bere desabantailak, balorazioak zaharkituak geratzea batik bat, beharrezkoak diren eguneraketak egin ezean.

Salbuetsitako minimoaren kasuan, araudien arteko diferentzia 100.000€koa da. Diferentzia hau ondare handien kasuan esanguratsua ez izatera iritsi daitekeen arren, ondare txikien kasuan diferentzia hau erabakigarria izan liteke, norbanakoa bat zergapetua izatetik zergapetzetik libre geratzera igaro daiteke eta alderantziz.

Tarifaren kasuan araudien arteko diferentziak esanguratsuagoak dira. Lau Lurralde Historikoetan helburua zergaren progresibotasuna bilatzea den arren, salbuespenak, hobariak eta kuota osoaren mugaren gisako neurri fiskalek eragina izan dezakete, progresibotasun hori mugatuz. Tarifen arteko ezberdintasunak era berean kuota osoaren mugaren ezarpenarekin zuzenki erlazionatuta daude.

Aztertu diren Gipuzkoako bi araudiek tipo maximo txikienak ezartzen dituzte eta era berean tarte finkatzen dute. Bestalde, araudi hauetan ez da kuota osoaren gaineko muga barneratzen, ondare handienen titular direnen zergapetzea "mugarik gabe" utziz eta era berean ondare zein errenta txikiagoak dituzten zergadunak babesten ditu, tipoak ez baitira gehiegizkoak. Bizkaia, Araba eta Nafarroako araudien kasuan aldiz, tipo maximoak altuagoak dira eta oinarri tartean ere anitzagoak, baina era berean kuota osoaren muga barneratzen da.

Lau Ogasunen kasuan jarduera ekonomikoei elementuak atxikitzea eta entitate jakin batzuetan akzioak eta partaidetzak edukitzea saritzen da, jarduera hauekin gizartera ekarpen garrantzitsuak egiten direla ulertzen baitu legegileak, enplegua sortzea esaterako. Gipuzkoan 2014ko abenduaren 31n indarrean zegoen araudiak hobaria ezartzea aurreikusten du, gizarteari ekarpen garrantzitsua egiten badie ere zergadun hauek ahalmen ekonomiko handiagoa izango dutela suposatzen baitu eta horrenbestez fondo publikoetara ere beraien

ekarpena egin behar dutela uste baita. Gipuzkoako bi araudien artean eginiko azterketatik ondoriozta daitekeen ideiarik garbiena ondorengo da: Zergaren moldaketak titularretan jarduera ekonomikoa erabat salbuetsia geratuko zela saldu zuen arren, baieztapen hori errealitatetik erabat urrun geratzen zela. Hainbat ondasun salbuetsiak ez egoteaz gain, gerta liteke zergadun batek jarduera ekonomikoen kontzeptuan gehiago ordaindu beharra moldatutako araudi berriarekin (Gipuzkoan, 2015eko abenduaren 31n indarrean zegoena). Horrez gain, zuzenketen konplexutasuna eta informazio ugariaren beharra dela eta, zergadunak sozietatea subjektu pasibo bihurtzen du eta hori gutxi ez balitz, zergaren kalkulua zailtzen du, egoera batzuetan gestiona ezin bilakatu arte.

Azterturiko gainontzeko lau araudietan aldiz, jarduera eta partaidetza hauek salbuetsiak gera daitezke, zergapetzetik erabat aske geratuz. Jarrera honekin enpresa sareak babestu eta sustatu nahi dira baina era berean elusio fiskalerako bidea irekitzen da. Izan ere, inork ez du zalantzan jartzen lan ondasunak (ondasun profesionalak) eta enpresetan partizipazioak zergadunarentzat aberastasun direnik, baina hauek jarduera ekonomikoei lotuak egonik, ez dira zergapetuak izango.

Beraz, nire ustez, gizarteko enpresa sareak babesteko hauei zerga tratamendu hobea eskaintzea egokitzen jotzen dudan arren, ezin da inolaz ere aberastasun guzti hori nahiz eta profesionala izan zergapetzetik aske geratu. Ondorioz, puntu honetan guztiz bat dator Gipuzkoan 2014ko abenduaren 31n indarrean zegoen araudiko legegilearekin.

Kuota osoaren mugaren kasuan, arazorik handiena arestian aipatu dudan bezala, fortuna handiek egin dezaketen planifikazioarena da. Hau da, ondasun handien titularrek errenta oso txikiak irabaztea planteatu dezakete eta modu horretan dagokien minimo soilik ordaindu ondarearen gaineko zergan. AFHZN muga hau barneratu ez denez, trikimailu hau ez da posible eta neurri horrek, nire uste apalean, zerga ekitatiboago edo justuago egiten du. Hala ere, azpimarratu beharrean nago muga honen ezabatzea zergapetze tipoen jaitsiera

batez lagundua egin beharko litzatekeela, zerga progresiboago egiteaz gain gehiegizko zergapetzeak ekidingo lituzkeelako.

Bestalde ideia orokor gisa, zergaren existentziaren eta egun izan dezakeen funtzioaren inguruko hainbat hausnarketa papeleratu nahi nituzke.

AFHZren izaera zentzualak erabat galdu du garai batean izan zezakeen zentzua. Egun eskuragarri eta egunerokotasunean erabat barneratuak ditugun informazioaren teknologiei esker administrazio publikoek zergadunen geroz eta informazio gehiago eskuratu dezakete. Joera hau etorkizunari begira geroz eta argiagoa izango da eta administrazioen eta zergadunen arteko informazio truke digitalizatua erabatekoa.

Hala ere, nahiz eta alderdi horretatik zergak zentzua galdu dezakeen, egun murgilduta gauden egoera ekonomikoari erreparatuz eta fondo publikoek duten finantzaketa beharra kontuan izanik, badirudi epe labur-ertain batean ez dela zerga hau desagertuko.

Azkenik eta honekin amaitzeko, nire iritzia eman aurretik aurretiaz ere aipatu dudan Helena Francok, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza diputatuak 2014an Berria aldizkarian argitaratutako artikulu bati egin nahi nioke erreferentzia. Bertan ondorengo baieztapena egin zuen AFHZri buruz: “zerga egokia da, aberastasunaren benetako zerga da, eta Gipuzkoako sistema fiskalari izaera ekitatiboagoa eta justuagoa ematen dio” (*Franco, H. 2014*). Zerga honi buruz egin dudan azterketaren ondoren, ezingo nuke neure hitzetan pentsatzen dudan argiago adierazi, hau da, guztiz bat nator berak eginiko baieztapenarekin. Aberastasunaren gaineko benetako zerga izanik, ondare handiak zergapetzea du helburu eta hauen ondarearentzat kalte edo “zulo” handirik suposatzen ez duen bitartean, aberastasunaren birbanaketan laguntzeko guztiz baliozkoa da. BEZak kontsumoa eta PFEZk errentak zergapetzen dituen bitartean, zerga honek, izenak berak adierazten duen bezala, aberastasuna zergapetu beharko luke.

BIBLIOGRAFIA

Agirrezabala, A. U. (2016). EH Bildu: “Bizkaiko etxebizitza garesti gehienek ez dute Ondare Zergarik ordaintzen Bizkaian”. *Argia* .

Avila, U. A. (2015). Gipuzkoako aberastasunaren gaineko zerga kentzeko lehen pausoa eman dute EAJk, PSEk eta PPK. *Argia* .

España, uno de los cinco países del la UE que aún tiene Impuesto de Patrimonio. (2014). *LaInformación* .

Franco, H. (2014). Aberastasunaren gaineko benetako zerga. *Berria* .

Gipuzkoa recauda más de lo previsto por su nuevo impuesto a la Riqueza. (2014). *Expansión* .

Gipuzkoako Foru Aldundia, Ogasun eta Finantza Departamentua. *Aberastasuna zergapetzeko proposamen berriak Europan*.

Franco, H. (2014). Aportación desde la práctica al debate sobre la tributación de la riqueza: El Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas de Gipuzkoa (2013-2014). *Expansión* .

Ibarzabal, N. (2015). 2016rako munduko biztanleriaren %1ek diru gehiago izango du gainontzeko %99k baino. *Argia* .

Ramon Rodolfo, S. B. (2012). Aspectos prácticos del impuesto de patrimonio. Visión desde la realidad cotidiana. *Revista Quincena Fiscal num.* , 1-8.

Sánchez, C. M. (2012). La renuncia a la exigencia del Impuesto sobre el Patrimonio. *Alternativas* .

European Comission, Eurostat. (2013). Taxation Trends in the EU.

AZTERGAI IZAN DIREN ARAUDIAK

Gipuzkoako Foru Aldundia:

- 10/2012 Foru Araua, abenduaren 18koa, Aberastasuna eta Fortuna Handien gaineko Zergarena
- 6/2015 Foru Araua, abenduaren 23koa, Aberastasuna eta Fortuna Handien gaineko Zerga moldatzen duena

Bizkaiko Foru Aldundia:

- 2/2013 Foru Araua, otsailaren 27koa, Ondarearen gaineko Zergarena

Arabako Foru Aldundia:

- 9/2013 Foru Araua, martxoaren 11koa, Ondarearen gaineko Zergarena

Nafarroako Gobernua:

- 13/1992 Foru Legea, urriaren 19koa, Ondarearen gaineko Zergarena

GAINONTZEKO ARAUDIAK:

Gipuzkoako Foru Aldundia:

- 14/1991 Foru Araua, abenduaren 27koa, Ondarearen Gaineko Zerga
- 4/2009 Foru Araua, abenduaren 23koa, aurretiaz indarrean zegoen Foru Araua deuseztatzen duena, lehen xedapen indargabetzailearen bidez.
- 6/2011 Foru Araua, abenduaren 26koa, Ondarearen gaineko Zerga berrezartzen duena.

Bizkaiko Foru Aldundia:

- 11/1991 Foru Araua, abenduaren 27koa, Ondarearen gaineko Zerga.
- 7/2008 Foru Araua, abenduaren 10ekoa, lehen xedapen indargabetzailearen bidez aurreko Foru Araua deuseztatzen duena.
- 4/2011 Foru Araua, abenduaren 28koa, Ondarearen gaineko Zerga berrezartzen duena.

Arabako Foru Aldundia:

- 23/1991 Foru Araua, abenduaren 11koa, Ondarearen gaineko Zerga.
- 22/2008 Arau Forala, abenduaren 22koa, lehen xedapen indargabetzailearen bidez aurreko Foru Araua deuseztatzen duena.
- 19/2011 Foru Araua, abenduaren 22koa, Ondarearen gaineko Zerga berrezartzen duena.

Nafarroako Gobernua:

- 22/2008 Lege Forala, abenduaren 24koa, "De modificación de diversos impuestos y otras medidas tributarias".
- 20/2011 Lege Forala, abenduaren 28koa, "De modificación de impuestos y otras medidas tributarias".

Espainiar Legegilea:

- 5/1977 Legea, azaroaren 14koa, "Medidas Urgentes de Reforma Fiscal"

- 19/1991 Legea, ekainaren 6koa, Ondarearen gaineko Zerga.
- 4/2008 Legea, abenduaren 23koa, Ondarearen gaineko Zerga indargabetzen duena “por la que se suprime el gravamen del Impuesto sobre el Patrimonio, se generaliza el sistema de devolución mensual en el Impuesto sobre el Valor Añadido, y se introducen otras modificaciones en la normativa tributaria”.
- 13/2011 Errege Dekretua, irailaren 16koa, Ondarearen gaineko Zerga behin behineko izaerarekin berrezartzen duena.
- Espainiako Konstituzioa, 1978ko abenduaren 29an, Estatuko Boletín Ofizialeko 311.zenbakian argitaratua.
- Auzitegi Konstituzionalaren 150/1990 sententzia, 1990eko urriaren 4koa.